

Memoria2023

Gizarte Politiken Saila



Editorea:

Gasteizko Udala

Gizarte Politiken Saila

00

AURKIBIDEA

01 Sarrera	6
02 Gizarte Politiken Saila	7
- Aurkezpena	7
- Sailaren zerbitzuak	8
- Betearazitako aurrekontua	10
- Urteko berrikuntza nabarmenak	11
03 Arretari buruzko datu globalak	13
04 Gizarte-zerbitzuen sistemarako sarbidea	19
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)	19
- Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua (UGLZ)	28
05 Herritarrei oro har zuzendutako oinarrizko zerbitzu eta prestazioak	30
- Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL)	30
- Udal Prestazio Ekonomikoen Pro. Programatik kanpoko beste prestazio batzuk	31
- Jantoki soziala	33
- Etxeko Laguntza Programa (ELP)	35
- Komunitate Arretako Programak (KAP)	37

06 Haurrak, nerabeak eta haien familiak	39
- Haur eta Nerabeetzako Udal Plana - HANUP	40
- Sustapen, prebentzio eta parte hartzeko programak	40
Emozio lantegien programa	40
Haur eta nerabeek parte hartzeko Aktibatu programa	41
Haur eta Nerabeen Elkargunea	41
Gurasotasun positiborako programak:	42
- Jabe zaitez seme-alabak hezteko duzun gaitasunaz	42
- "Senidegune", familientzako heziketa gunea	42
- Jardunbide egokiak arretan eta heziketan	43
- "Prologo" prebentzio-programa	43
Kale Heziketako Udal Programa – KHP	44
- Arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeen kasuetan familiari laguntzeko eta esku hartzeko programak	45
Familiei laguntzeko programak:	45
- Arreta psikologikoa eskaintzeko programa	45
- Aldi baterako zaintza eskaintzeko "Orain" programa	46
- Gurasoen aurkako indarkeria-egoeretan garaiz esku hartzeko programa	46
- Gurasokidetasun positiboa lantzeko "Egokitzen" programa	47
- "Concilia" gunea	48
- Gizarte eta Hezkuntza alorretan esku hartzeko Programa	48
Arrisku- eta babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko programak	49
- Ebaluazioa eta esku-hartzea babesgabetasun-egoeretan	49
- Psikologiaren eta heziketaren alorretan laguntzeko "Pausoka" programa	49
- Umeen aurkako sexu-gehegikerien kasuetan aholkularitza psikologikoa eskaintzeko ASASI programa	50
- Familiak babesteko programak:	51
- Laguntza eta garapen egokiturako 'ADA' programa	51
- Heziketan laguntzeko eta ostatua eskaintzeko "Bidatu" programa	51
- Gizarte- eta hezkuntza-zentroak	52
07 Indarkeria matxista	54
- "Onarpen", arretarako unitatea	54
- Ostatu-zerbitzuak, harrera-etxebizitzak	55
- Telelaguntzarako ATENPRO programa (mugikorra-GPS)	56
08 Gizarte-bazterkeria edo bizitegi-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak	57
- Etxebizitza-arazoan aurrean, Udalaren gizarte-zerbitzuen erantzunaz	57

- Harrera-baliabideak	57
Harrera Sozialerako Udal Zentroa: HSUZ	57
Aterpe gaueko harrera zerbitzua	58
Sarrera libreko egunak	59
Estrada, eguneko arreta-zerbitzua	60
- Ostatu-zerbitzuak	61
Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako zaintzapeko etxebizitzak	61
Gizarte-larrialdiko egoeretan arreta eskaintzeko harrera-etxebizitzak	62
Ostatuak autonomian	63
- Intentsitate handiko - Hurbil ekipoa	63
09 Gizarteratzea eta laneratzea	65
10 Adinekoak	68
- Zentro eta programa komunitarioak	
BIZAN (Adinekoentzako Zentro Soziokulturalak)	68
- Zerbitzuak: harrera, ikus-entzunezkoak eta erakusketak, irakurketa guneak, ile-apaindegia, podologia	69
- Bizan Info	70
- Adinekoen parte-hartzea	71
- Animazio soziokulturaleko programak	73
o Esku-hartze komunitarioa	73
o Etengabeko esku-hartzea (ikastaroak eta lantegiak)	76
- "Beste programa batzuk	77
Jantokiak	81
Maiteki: Familia zaintzaileei laguntzeko programa	81
- Eguneko arretarako eta etxeoaz beste ostaturik eskaintzeko zerbitzuak	83
Eguneko arreta-zerbitzuak	83
Zaintzapeko apartamentuak	84
Etxebizitza komunitarioak	85
- Adinekoek laguntzeko San Prudentzio zentro integrala (ALZI)	86
Egoitza	86
Larrialdiei arreta	88
Zeharkako zerbitzuak (sukaldea eta garbitegi zerbitzuak)	88
11 Informazio gehiago...	89

01 Sarrera

2023ko oroitidazkiaren bidez, Gizarte Politiken Sailak udalaren gizarte zerbitzuen jarduerarekin lotutako urteko zifra nagusiak aurkeztu ditu.

Orrialde hauetan, hala baliabide eta programek nola premiek izandako bilakaera eta Udalak emandako erantzuna laburbildu ditugu. Orobat, Gasteizen bizi diren pertsonen autonomia eta gizarte ongizatea handitzeko egiten ari garen lanaren gardentasunarekin eta zabalkundearekin dugun konpromisoa adierazten du agiri honek.

Kalitatea hobetzea da erronka, arreta humanizatuz, ikerketa aplikatuaren, ezagutzaren kudeaketaren eta berrikuntza sozialaren bitartez. Gizarte Zerbitzuen irudi positibo, doi eta sendoa ematea oinarritzko premisa da hurbileko erreferente izateko, eta, beraz, lanean jarraituko dugu hori lortzearen.

Gure zereginaren zentzuari eta egiteko moduei buruzko hausnarketak markatu du 2023. urtea. Orain arte egindakoaren aitorpenetik abiatuta, proposamen bat egin da, udalaren gizarte zerbitzuak komunitatean zaintzeko gizarte zerbitzu bihurtzeko. Horren guztiaren berri emango dugu Gizarte Zerbitzuen webgune berrituan. Bertan, programei eta baliabideei buruzko informazio zehatzagoa aurkituko duzue, baita abian jarriko diren ekimenei buruzkoa ere.

Azkenik, azpimarratu nahi dut gizarte politikak udal gobernu honen lehentasuna direla, eta sail honetako langile guztien konpromisoa eskertu nahi dut.

Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra
Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkaria


02 Gizarte Politiken Saila

Aurkezpena

Gizarte Politiken Saila herritarrengandik gertuen dagoen gizarte-zerbitzuen sare publikoa da, eta helburua komunitatea eratzea du, Gasteizen bizi diren pertsonen autonomiaren eta ongizate sozialaren alde eginez.

Organigramaren barruan, zerbitzu orokorrak edo balio anitzekoak eta espezifikoagoak bereizten ditugu:

- zerbitzu orokorrak dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ), Komunitate Jardueren Zerbitzuaren mendekoak, bai eta Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua ere (UGLZ), Gizarte Inklusioaren Zerbitzukoa.
- zerbitzu espezifikoak dira Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua, Gizarte Inklusioaren Zerbitzua eta Adinekoen Zerbitzua



Datu orokor gisa, esan behar da Udalaren Gizarte Zerbitzuetan kontratazioko zuzeneko eregimean ari dira 473,7 langile daudela, eta zeharkako kudeaketa bidez 664,3 (lanaldi osokoen kopurua, guztira).

Esku-hartzeak talde profesional zabal baten bidez garatzen dira, eta hori da gizarte-zerbitzuen lehen baliabidea. Bertan, baliabideen izapidetzea eta programetarako sarbidea pertsonarekin adostutako zuzeneko interakzioan oinarritutako esku-hartze profesional baten esparruan dago kokatuta (pertsona ardatz duen arreta integraleko eredua).

2023az geroztik, komunitatean zaintzeko gizarte zerbitzuetan oinarritutako ikuspegia sustatzen ari da. Ikuspegi horretan, esku-hartzea pertsona bakoitzaren harreman-sistemaren zati gisa ulertzen da: eguneroko jardueretatik eta lotura hurbilenetatik hasi eta auzoan eta komunitatean duen roleraino.

Banakako eta familientzako arretaz gain, Sailak esku-hartze komunitarioan ere lan garrantzitsua egiten du, parte-hartzea eta hiriak duen gaitasun integratzailea sustatuz.

Sailaren zerbitzuak

Komunitate Jardueren Zerbitzua

Jarduera zentralizatu gabea egiten du hiriko Oinarrizko 14 Gizarte Zerbitzuen bidez, esku-hartze sozialerako zerbitzu orokortzat hartzen da, oinarrizko edo lehen mailako zerbitzutzat, eta hauek ditu zereginak:

- Udalean nahiz beste erakunde eta sektore batzuetan erabilgarri dauden gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa eman, balorazioa egin, diagnostikatu eta orientabide ematen du
- programa pertsonal orokorrak kudeatzen ditu eta programa espezifikoaren aplikazioa proposatzen du
- prebentzio- eta sustapen-jarduerak garatu eta ezartzen ditu; bai herritar guztientzat zabalik daudenak, bai kolektibo jakinei zuzendutakoak

Zuzeneko esku-hartze horiek guztiak zeharkako esku-hartzeekin osatzen eta indartzen dira, pertsona, familia, taldea edo komunitatearekin lotura duten beste arlo batzuetako profesionalekin koordinatuta, hala, sareko lana garatzea sustatuz.

Gizarte Inklusioaren Zerbitzua

Zerbitzu espezifiko gisa jokatzeko du, eta zaugarritasun sozial handieneko pertsonekin, gizartetik baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonekin administrazio publikoak duen erantzukizuna du oinarri.

Era berean, berehalako arreta edo larrialdietako lehen arreta (Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua, UGLZ) eskaintzen du Arabako Lurralde Historiko osorako.

Gizarte Inklusioaren Zerbitzuak programak eta baliabideak eskaintzen ditu bizi-baldintzek eta bizitzan eginiko bideek zaugarritasun hori areagotu dieten pertsonen arreta eskaintzeko: bizitegi, prestakuntza eta lan arloan baztertuta dauden pertsonak, iragaitzak, indarkeria matxista jasandakoak eta askotariko egoera konplexuek dakartzaten beste behar batzuk dituztenak.

Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua

Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzua arduratzen da Gasteizko Udalaren misio hau koordinatzeaz eta eraginkor egiteaz: *“gure udalerriko ume eta nerabeen eskubideak zaintzea, haien ongizatea lortzeko, dituzten beharrei erantzuna ematen zaiela ziurtatuko duten prebentziozko ekintzak eta babes-ekintzak garatuz”*.

Ume eta nerabeen arloko zerbitzu espezifiko honek eragile-, kudeatzaile- eta koordinatzaile-zereginak egiten ditu Haur eta Nerabeen II Planean, eta egiten ditu herritar guztiei, oro har, zuzendutako sustapen- eta prebentzio-ekintzak ere. Gainera, ume eta nerabeen babesgabetasun-egoera moderatuetan balorazioa eta esku-hartzeak ere egiten ditu familientzako laguntza- eta babes-baliabideen bidez.

Adinekoeen Zerbitzua

Zahartze aktiborako proposamenetik abiatuta, honako hauek egiten ditu zerbitzu honek:

- Garapen pertsonala eta soziala bultzatzea, autonomia eta lotura sozialak sustatuz, hala aisialdiaz gozatzeko eta bizitza sozialean eta komunitatekoan parte hartzeko. BIZAN sarea du, 16 zentroz osatua.
- Adinekoei haien ingurunean ahalik eta denbora gehien eta ahalik eta egoera onenean bizitzen laguntzea, zenbait baliabideren bidez: jantokiak, eguneko arreta-zentroak, Maiteki: Familia zaintzaileei laguntzeko programa.
- Hainbat arrazoi direla medio ohiko etxebizitzan geratu ezin diren adinekoei bizitoki alternatiboa ematea.

Atal hau amaitzeko, aipatu behar da dokumentu honetan udal gizarte-zerbitzuei buruz azaltzen diren datuak ez dituela datu horiek kudeatzen dituen Zerbitzuak multzokatzen, baizik eta, errazago irakurtzeko, gaika multzokatzen direla.

2023an betearazitako aurrekontua

Gizarte Politiken Sailak, 2023an, 78.061.289,58 € euroko aurrekontua betearazi du eta Gasteizko Udalaren aurrekontu osoaren % 17,5 osatu du.

2023AN BETEARAZITAKO AURREKONTUA	
GIZARTE POLITIKEN SAILA	78.061.289,58
UDALARENA, GUZTIRA	447.178.840,82
UDAL-AURREKONTU OSOAREN % 17,5 GIZARTE POLITIKEN SAILERA DAGO ZUZENDUTA.	

OHARRAK:

- Gizarte Politiken Sailaren aurrekontua (2023an gauzaturako aurrekontua, 2022eko soberakin gauzatuak barne): gure Sailari dagozkion zenbait gastua ez dira bertan zenbatu, zeharkako sailetan zentralizatuta daudelako; adibidez, Mantentze lanak (konponketak, garbiketa, makineria eta eraikinak...), Ogasuna (gasa, argia...), Teknologia Berriak (informatika- eta telefono-ekipamenduak), Hirigintza (inbertsioak zentroetan...)...
- Udalaren aurrekontu osoa: Udalak 2023an betearazitako (geldikinekin) aurrekontu osoa, sozietateak eta organismoak sartu gabe.

SAILAREN AURREKONTUA KAPITULUKA ETA ZERBITZUKA					
2023. URTEA	I. KAP.	II. KAP.	IV. KAP.	VI. KAP.	GUZTIRA
Zerbitzu orokorrak	3.437.752,76	126.091,91	147.507,07	1.170.612,52	4.881.964,26
Hurtzaroa eta Senitartea	1.380.960,87	3.553.741,41	62.898,96	0,00	4.997.601,24
Adinekoak	16.301.195,68	9.593.431,69	140.941,84	18.103,15	26.053.672,36
Ekintza Komunitarioa	6.122.239,71	18.978.044,71	10.680.748,59	0,00	35.781.033,01
Gizarte Inklusioa	2.437.749,32	3.614.579,58	294.689,81	0,00	6.347.018,71
GUZTIRA	29.679.898,34	35.865.889,3	11.326.786,27	1.188.715,67	78.061.289,58

Kapituluka, I. kapituluak (langileak) aurrekontuaren % 38,02 hartu du; II. Kapituluak (ondasun arruntak eta programak gauzatzeko zerbitzuak) % 45,95; IV. Kapituluak (transferentzia arrunta) % 14,51; VI. Kapituluak (makineria, altzariak eta inbertsioak) aurrekontuaren % 1,52.

Sailaren kudeaketari dagokionez, % 56,59 zuzenean kudeatzen da, eta % 43,41% zeharka (%43,37 kontratu bidez eta % 0,04 kanpoko entitate batekiko hitzarmen bidez).

Urteko berrikuntza nabarmenak

Izan ere, gure zereginaren zentzuari eta egiteko moduei buruzko hausnarketak markatu du 2023. urtea. Orain arte egindakoaren aitorpenetik abiatuta, proposamen bat egin da, udalaren gizarte zerbitzuak zaintzeko gizarte zerbitzu bihurtzeko. Urtarrilean, Fernando Fantova kanpoko aholkulariaren laguntzarekin, hausnarketa teoriko moduko bat landu zen abiapuntu gisa. Otsailaren 22an eta 23an gogoeta-lantegiak egin ziren Gizarte Politiken Saileko profesionalekin eta horien ondorioz zenbait proiektu pilotu aurkeztu ziren. Ondoren, esperientzia pilotu bat diseinatu zen Aldaben eta Aranan, eta zenbait kontraste-lantegi egin ziren herritarrekin. Esteka honetan kontsulta dezakezu nola ari den garatzen arreta-eredu hori: Zaintzen gizarte zerbitzuen bidean.

Egiten ari garen lana testuinguruan kokatu ondoren, urteko berrikuntza nagusiak aipatuko ditugu labur-labur. Halaber, Gizarte Zerbitzuen aldizkari digitala eta Gizarte Zerbitzuen webgunea bisitatzeraz animatzen zaituztegu, horien edukiak eta diseinua eguneratu egin baitira.

- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Estatuko Elkarteak udalaren gizarte zerbitzuen ibilbidea aintzatetsi du, erakunde publikoaren modalitateko saria eman baitio. Saria urriaren 19an eman zen, Madrilen, Elkartearen urteko XXX. biltzarren barruan.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko, dagoeneko arreta jasotzen ari diren pertsonen **010 udal arretarako telefonoan** eskatu ahal dituzte hurrengo **hitzorduak** uztailetik aurrera.

- Baliabide jakin batzuetarako sarbidea erraztearekin lotuta, orobat, gizarteratze- eta laneratze-ikastaro batzuetan izena online emateko aukera ematen da webgunearen bidez. https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u36851b9a_16975832899_7ec7G urasokidetasun positiboa lantzeko (Egokitzen) eta gurasoen aurkako indarkeriari aurre egiteko (Harreman) programetan interesa izanez gero, zuzenean jo daiteke Hautzaro eta Senitarte Zerbitzura.

- Osasun Mentalaren Munduko Eguna ospatzearekin batera, prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpaina bat jarri zen abian, haur eta nerabeen osasun mentala zaintzeko. Ekimenaren leloa "Gelditu indarberritzeko. Onartu, eraldatu eta baloratu zure osasun mentala" da, eta helburua, haurrei eta nerabeei bizi-ohitura egokiak berreskuratzen laguntzea, haien osasun mentalaren mesedetan.

- **Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren arloko** taldeen arteko komunikazioa eta lankidetzaz errazteko, **lankidetzaz eta koordinazio-protokolo** bat sinatu da Osakidetzako Arabako ESIaren, Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen artean. Protokolo horren helburua kasuen komunikazioa eta koordinazioa

indartzea eta azkartzea da, baita lankidetzan aritzea ere esku-hartze bateratuko programak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko.

- Haur eta Nerabeentzako II. Tokiko Plana (HANUP) 2023. urterako luzatzea onetsi da: **Gasteizko Haur eta Nerabeentzako Tokiko Plana, 2023ko luzapena**. Bestalde, nabarmendu behar da Gasteiz **Haurren Lagun den Hiri** izendatzen duen ziurtagiria berritu dela. Ziurtagiri hori 2023-2027 aldian egongo da indarrean, eta berretsi egiten du Udalaren haurren arloko politikek Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotako eskubideak errespetatzen eta aplikatzen dituztela.

Gurasotasun positiboari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatearekiko lankidetzari eutsi zaio, eta programa horren ebaluazioa egiten hasi da.

- "**Concilia**" **zerbitzua** jarri da abian, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden familia zaurgarrietako haurrei arreta eta aldi baterako zaintza emateko. Baliabide hori Gizarte Inklusioaren alorreko Jardunbide Egokien II. Nazioarteko Biltzarrean saritu zuten; horren ondorioz, Gizarteratzeko Jardunbide Egokien Bankuan sartu zuten eta UNEDen katedraren aholkularitza jasotzen du etengabe hobetzeko.

- **PISE-Gizarte eta hezkuntza eremuetan esku hartzeko programaren** baldintza teknikoen agiri berria landu da. Agiri berri horretan, programa bi zerbitzutan banatzen da: pertsonekin eta familiekin gizarte eta hezkuntza alorrean esku hartzeko zerbitzua eta udalaren gizarte zerbitzuetako taldeei gizarte eta hezkuntza arloko laguntza emateko zerbitzua.

- **Bidelan espazio berrian** jantoki soziala abian jartzeko lanak egin dira (baliabidearen diseinua eta lokalaren ekipamendua). Jantoki sozial berri horrek leku gehiago eta instalazio hobeak izango ditu, eta gizarteratzeko eta laneratzeko jarduerak eta ikastaroak ere eskainiko ditu.

- Gizarteratze eta Laneratze Atalak **"Zerbitzuen Karta"** aurkeztu du. Atalak eskaintzen dituen jardueren berri ematen du, eta talde profesionalak hartzen dituen konpromisoak azaltzen ditu.

- Gizarteratzearen eta laneratzearen esparruan, bi proiektu pilotu abian jarri direla nabarmendu behar da: **Emaukera** eta **Empleando.nos**. **Emaukera** proiektu espezializatu eta esperimentalala da, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten eta genero-indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumei zuzendua. **Empleando.nos** proiektuak, berriz, zaurgarritasun-testuinguruetan dauden, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskua duten gazteei lagun egiteko xedea du, esparru ezberdinen arteko arreta koordinatua behar dutenean. Gizarteratzeko ibilbide misto horiei buruzko informazio zehatzagoa kontsulta daiteke memoria honetan.

- "**Ostatuak autonomian**" programak plaza-kopurua handitu du. Proiektu berri hori duela urte batzuk sortu zen, Housing First metodologiaren egokitzapen berezi gisa, eta haren helburua da eskura dauden baliabideen aniztasuna handitzea, etxebizitza-gabeziak eragindako pertsonak — aurretik etxegabetasun-ibilbiderik izan ez dutenak— baztertuta geratzera irits ez daitezen.

- **Gaueko Harrera Zerbitzuak (Aterpe)** hobetu egin du emakumeen erabilerako eremua, ekipatzeko partaidetza-prozesu baten ondoren. Horri esker, gero eta gehiago hartzen da kontuan emakumeei arreta emateko, eta bertara sartzen direnek gero eta gehiago baloratzen dute.

- **Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta, esku-hartzea eta bidelaguntza hobetzeko prozesua** lantzen duen taldeak genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabekin lan egitea bultzatu du. 2023. urtean, seme-alabak ikusarazteko premian jarri du arreta, indarkeria-testuinguruetan bizitzeak haien garapenean nola eragiten duen baloratuz eta indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea ahalbidetuko dieten jarduketa integralak eskainiz. Ondorioztatu da horretarako beharrezkoa dela jakitea nola ari diren betetzen gurasotasuna beren erreferentziazko figura helduak, espazio seguruak bilatzea gurasoengan gaitasun horiek hobetzeko, eta adingabeengan aurre egiteko eta erresilientziarako estrategiak garatzea. Bestalde, nabarmendu behar da hobekuntza-talde horren lana Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioak (FEMP) (tokiko jardunbide egokien lehiaketaren VIII. edizioko saria) eta Arabako Foru Aldundiak (BeBai 2023) aitortu eta saritu dutela.

- EHUren trantsizio-beka bat aprobetxatuz, soziologo batek lehen harreraren barne-azterketa bat egin du, udalaren gizarte zerbitzuek bakarrik dauden gazte migratzaileei ematen dieten arreta hobetzen laguntzeko.

- Otsailean **Berpizkundera eguneko arreta zerbitzu** berria ireki zen. 40 leku ditu, eta 2 txanda: bata goizez eta bestea arratsaldez. Bai adinekoek bai beren familiek oso ondo hartu dute ordutegi eskaintza, haien arreta eta laguntza beharretara egokitzen baita.

- 60+ aholkularitza psikologikoa baliabide berria jarri da abian, bizitzako egoera zailtan edo berrietan nahastuta edo adoregabetuta sentitzen diren 60 urtetik gorako pertsoneri laguntzeko. 60 urtetik gorakoentzako zerbitzu konfidentzial, publiko eta doakoa da, eta saio kopuru mugatua du.

2023ko uztailean jarri zen abian BIZAN info, BIZANen informazio-bulegoa adinekoentzat, haien ingurukoentzat eta haiekin lotutako profesionalentzat. Urtearen bigarren erdian, mila pertsona baino gehiago igaro dira zahartze aktiboa, pertsonen arteko topaketa eta herritarren parte-hartzea bultzatzen duten programei buruzko informazioa eskatzera.

- Webgune honetan biltzen da BIZANen eskaintza osoari buruzko informazioa: www.vitoria-gasteiz.org/bizan. 2023an adinkeriaren kontrako “Bateragarriak” kanpaina (www.bateragarriakgara.com) nabarmendu dezakegu.

03 Arretari buruzko datu globalak


Arretari buruzko datu globalak, 2023

Kapitulu honetan, Memoriaren gainerako zatietan ez bezala, datuen laburpen global bat aurkeztuko dugu sistema informatikoan erregistratutako udal esku-hartze sozialari buruz. Datuen lehen laburpen honekin, eskainitako arretaren ikuspegi orokorra eskaintzen da arretaren bolumen eta profilari dagokionez, eta hala, saihestu egiten da ondorengo ataletan adierazitako baliabide eta programen gainerako datuak modu isolatuan eta independentean ulertzea.

2023an arreta jaso duten familiak (urteko uneren batean aktibo egon diren familia-espeditentak) 17.826 izan dira; 17.826 familia-espeditente horietan, guztira, 33.903 pertsona zeuden.


Urtean zehar aktibo egon den espeditente kopuruari dagokion urteko zifra erakutsi ondoren, urte amaierako indarrean zegoen egoerari begiratuko diogu; hau da, arretari, une jakin batean (urtearen amaieran), “argazkia” aterako diogu. 2023ko abenduaren 31n, 16.500 familia-espeditente zeuden indarrean. 16.500 familia-espeditente horietan 31.506 pertsona daude alta emanda, eta beraz, 2023ko amaieran, erroldatutako herritarren % 12,2 artatu da.

Artatutako biztanleen ehunekoa



Hurrengo grafikoan adinaren arabera banakatuta ikusten da arreta jaso duten herritar horien ehunekoa. Adibidez, 85 urte edo gehiago dituztenen adin-tartean, erroldatutako herritarren % 35,1k jaso dute arreta, eta 46-64 urtekoen artean % 7,7k, eta 18 urtetik beherakoen artean % 17,2ek.

Artatutako pertsonak, erroldatutakoekiko, adin-tartearen arabera, %



Arretari buruzko datu globalak aurkeztu ondoren, abenduaren 31n artatuta zeuden familia-espeditenteen kopuruak izandako bilakaerari begiratuko diogu.

INDARREAN DIREN FAMILIA ESPEDIENTEEN BILAKAERA			
	2021/12/31	2022/12/31	2023/12/31
Ekintza Komunitarioa	12.600	13.250 (*)	14.208 (**)
Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua UGLZ	559	728	768
Hautzaroa eta Senitartea	369	355	358
Adinekoak	914	800	840
Gizarte Inklusioa (UGLZ aintzat hartu gabe)	300	282	326
Guztira	14.742	15.415	16.500

(*) 13.250 dossier horietatik, 11.252 oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkie, eta 1.998, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bulegoari.

(**) 14.208 dossier horietatik, 11.862 oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkie, eta 2.346, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bulegoari.


Arretaren profilari buruzko datu nagusiak ikusiko ditugu orain, eta honako hauek adierazten dituzte:

- Artatutako bizikidetzeta-unitateen erdiak (% 50,2) pertsona bakarrekoak dira.
- Gaur egun, dossierren % 38,7 dagozkie 65 urteko edo gehiagoko erreferentziako pertsona bati.
- Artatutako pasadizoko pertsonen kopurua % 4,6 ingurukoa da.
- Indarrean diren espeditenteen % 59,1an, erreferentziako pertsonak espainiar nazionalitatea du.
- Arreta eskaini zaien 16.500 familietatik 4.171k adingabeak dituzte haien ardurapean (% 25,3).

ABENDUAREN 31N INDARREAN DIREN FAMILIA ESPEDIENTEEN BILAKAERA				
erreferentziako pertsonaren familia/familia mota/sexu/nazionalitate eta adinaren arabera				
		2021/12/31	2022/12/31	2023/12/31
Bizikidetzaren unitatea	Pertsona bakarreko familia	7.530 (51,1%)	7.681 (49,8%)	8.288 (50,2%)
	Pertsona bakarrekoak ez direnak	7.212 (48,9%)	7.734 (50,2%)	8.212 (49,8%)
	Guztira	14.742 (100%)	15.415 (100%)	16.500 (100%)
Familia mota	Familia nuklearra, seme-alabekin	2.687 (37,3%)	2.870 (37,1%)	2.930 (35,7%)
	Guraso bakarreko familia	1.789 (24,8%)	1.666 (21,5%)	1.707 (20,8%)
	Familia nuklearra, seme-alabarik gabe	1.624 (22,5%)	1.946 (25,2%)	2.223 (27,1%)
	Familia zabaldua ahaidetasun-harremanarekin	657 (9,1%)	722 (9,3%)	810 (9,9%)
	Beste mota batzuk	455 (6,3%)	530 (6,9%)	542 (6,6%)
	Guztira (pertsona bakarreko familiak kontuan hartu gabe)	7.212 (100%)	7.734 (100%)	8.212 (100%)
Egoiliarra / Iragaitzazkoa	Egoiliarra	14.196 (96,3%)	14.701 (95,4%)	15.747 (95,4%)
	Iragaitzazkoa	546 (3,7%)	714 (4,6%)	753 (4,6%)
	Guztira	14.742 (100%)	15.415 (100%)	16.500 (100%)
Erreferentziako pertsonaren nazionalitatea	Espainia	8.559 (58,1%)	9.145 (59,3%)	9.752 (59,1%)
	Magreb	2.194 (14,9%)	2.172 (14,1%)	2.238 (13,6%)
	Hego Amerika	1.778 (12,1%)	2.049 (13,3%)	2.406 (14,6%)
	Afrikako gainerako lekuak	1.093 (7,4%)	994 (6,4%)	977 (5,9%)
	Europa	451 (3,1%)	457 (3,0%)	472 (2,9%)
	Asia	259 (1,8%)	236 (1,5%)	262 (1,6%)
	Erdialdeko Amerika	313 (2,1%)	270 (1,8%)	293 (1,8%)
	Beste batzuk	95 (0,6%)	92 (0,6%)	100 (0,6%)
Guztira	14.742 (100%)	15.415 (100%)	16.500 (100%)	
Erreferentziako pertsonaren sexua	Gizonezkoa	6.106 (41,4%)	6.161 (40,0%)	6.565 (39,8%)
	Emakumezkoa	8.636 (58,6%)	9.254 (60,0%)	9.935 (60,2%)
	Guztira	14.742 (100%)	15.415 (100%)	16.500 (100%)
Erreferentziako pertsonaren adina	0-2 urte	4 (0,0%)	4 (0,0%)	8 (0,0%)
	3-5 urte	0 (0,0%)	1 (0,0%)	0 (0,0%)
	6-12 urte	3 (0,0%)	1 (0,0%)	0 (0,0%)
	13-17 urte	49 (0,3%)	58 (0,4%)	75 (0,5%)
	18-22 urte	470 (3,2%)	457 (3,0%)	46 (2,8%)
	23-30 urte	1.375 (9,3%)	1.385 (9,0%)	1.459 (8,8%)
	31-45 urte	4.136 (28,1%)	3.915 (25,4%)	4.033 (24,4%)
	46-64 urte	3.762 (25,5%)	3.912 (25,4%)	4.064 (24,6%)
	65-84 urte	2.794 (19,0%)	3.270 (21,2%)	3.785 (22,9%)
	85 eta gehiago	2.142 (14,5%)	2.406 (15,6%)	2.603 (15,8%)
	Ez dago jasota	7 (0,0%)	6 (0,0%)	12 (0,1%)
Guztira	14.742 (100%)	15.415 (100%)	16.500 (100%)	

Arazo motei dagokionez, hasteko, aipagarria da artatutako bizikidetza-unitateen % 41,0k arazo ekonomikoak dituztela. Arazo horren garrantzia handia bada ere, aipagarria da arazo ekonomikoek lotutako espediente horien % 79,2k badituztela beste arazo batzuk, arazo ekonomikoez eta/edo informazio-faltaz gain. Ondorengo grafikoak erakusten du egoera hori:

Arazo ekonomikoak dituzten artatutako bizikidetza-unitateen %



Oharra: Familia-espediente bakarrean arazo mota bat baino gehiago erregistra daitezke, eta horregatik, ehuneko batura % 100 baino handiagoa da.

Ondorengo koadro honek erakusten du, azken hiru urteetan, abenduaren 31ko datan, familia-espedienteetan erregistratutako arazo multzokatuen bilakaera. Koadroa aztertuta, ondorio hauek atera daitezke:

- Handitu egin da adinekoen arretari lotutako bi arazo-multzoren kopurua eta intzidentzia: "autonomia pertsonalaren mugak" eta "osasuna" (mendetasuna). Gorakada horrek azken urteetako joerari jarraitzen dio, eta nabarmenagoa izan da 2022tik, Gasteizko etxeko laguntzaren kudeaketa osoa bere gain hartu duenetik.
- 65 urtetik gorakoentzako arreta handitzean, gutxitu egin da beste arazo batzuek arreta globalaren barruan duten garrantzia, arazo ekonomikoek, esaterako.
- Etxebizitzaren arazoa ere larriagotu egin da.
- Indarkeria matxistagatik artatutako emakumeen kopuruak behera egin badu ere, dosierrak berrikustearen ondorioz egin du behera; izan ere, 2023an detektatutako kasu berrien kopuruak gora egin du.
- Amaitzeko, azpimarratu behar da gero eta gehiago direla tratamendu psikosoziala eskatzen duten esku-hartze konplexuagoak.

FAMILIA-ESPEDIENTEEN KOPURUAREN BILAKAERA INDARREAN DEN ETENGABEKO ARAZO MOTAREN ARABERA						
Indarrean den arazo mota	2021/12/31		2022/12/31		2023/12/31	
	Familia- espedienteak	%	Familia- espedienteak	%	Familia- espedienteak	%
Arazo ekonomikoa	7.324	49,7%	6.766	43,9%	6.766	41,0%
Lan-munduratzeko zailtasunak	4.040	27,4%	3.624	23,5%	3.583	21,7%
Autonomia pertsonala mugatuta	3.791	25,7%	4.199	27,2%	4.805	29,1%
Osasuna	2.602	17,7%	2.848	18,5%	3.275	19,8%
Gizarteratzeko zailtasunak	2.446	16,6%	2.283	14,8%	2.266	13,7%
Bizikidetzarazoak	1.775	12,0%	1.589	10,3%	1.470	8,9%
Etxebizitzarazoak	1.515	10,3%	1.492	9,7%	1.650	10,0%
Bakardadea/isolamendua	1.115	7,6%	1.092	7,1%	1.159	7,0%
Haur eta nerabeen babesgabetasuna	767	5,2%	741	4,8%	790	4,8%
Arazo psiko-afektiboak	732	5,0%	708	4,6%	669	4,1%
Indarkeria matxista	655	4,4%	654	4,2%	557	3,4%
Baliabide pertsonaletan gabeziak	626	4,2%	592	3,8%	589	3,6%
Eskolatzeko zailtasunak	315	2,1%	279	1,8%	266	1,6%
Informazio falta (esklusiboki)	338	2,3%	250	1,6%	0	0,0%
Adinekoen aurkako tratuetxarrak/desegokiak	30	0,2%	36	0,2%	47	0,3%
Familiak indarrean, guztira	14.742	100,0%	15.415	100,0%	16.500	100,0%

Oharra: Familia-espediente bakarrean arazo mota bat baino gehiago egon daitezke, eta horregatik, ehuneko batura ez dator bat artatutako familien kopuru osoarekin. Ehunekoak artatutako familia guztiak aintzat hartuta daude kalkulatuak.

Lehenengo datu horiek eskaintako arretaren bolumenaren eta profilaren egoera globala erakusten dute, eta orain, programa edo baliabide bakoitzaren informazio zehatzagoa azalduko dugu.

04 Gizarte-zerbitzuen sistemarako sarbidea

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ)

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (OGZ) Gizarte Zerbitzuen sistemaren oinarrizko unitatetzat eta berehalako sarbidetzat hartzen dira. Diziplinarreko taldeek osatzen dituzte, eta administratiboki, hamar eremutan daude antolatuta; funtzionalki, ordea, hiriko 14 gizarte-etxeetan daude.

Gizarte-ongizatea sustatzeko eta ongizate horri ekarpena egiteko helburuarekin, arreta osoa eskaintzen diote pertsonari, pertsonaren autonomia indartuz, eta bere baliabide propioak nahiz familia eta komunitatearenak ere indartuz. Oinarri horretatik abiatuta, laneko eduki hauek jorratzen ditu:

- Udalean nahiz beste erakunde eta sektore batzuetan erabilgarri dauden gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa ematea, balorazioa egitea, diagnostikatzea eta orientabidea ematea.
- Dagokion eremuan dagoen eskakizun soziala hautematea, eta eskakizun hori esku hartzeko eta/edo ebazteko proposamenekin bideratzea.
- Esku-hartzeak hala eskatzen duenean, Saileko zerbitzu espezifikotara eta beste erakunde batzuetara bideratzea.
- Hautemandako zaurgarritasun-egoerak konpontzeko esku hartzea.
- Zerbitzuaren, Sailaren edo beste udal-sail batzuen programak aplikatzea.

Pertsona eta familiekin egiten den esku-hartzeaz gain, esku-hartze komunitarioa ere egiten da, herritarrek zailtasunak gainditzeko lanean parte hartzea lortzeko, parte-hartze komunitarioa eta elkarri babesa eta laguntza emateko sareak sortzea sustatuz.

Arretari buruzko urteko datuak (OGZ)

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek (OGZ) diziplinarreko taldeak dituzte, eta talde horietan, profesionalak dira lehen baliabidea eta funtsezko baliabidea. 14 OGZetan 120 profesional aritzen dira, guztira: 49 gizarte-langile, 22 administrari, 6 administrari-laguntzaile, 21 kaleko hezitzaile, 12 psikologo eta 10 arduradun.

2023an 12.527 bizikidetzta-unitatek jaso dute OGZen arreta; alegia 25.040 pertsonak.

Artatutako 12.527 bizikidetz-unitateetatik % 40,6 (5.083) espediente berria abiarazi zaie edo urte horretan berraktibatu zaie espedienteak. Bestalde, 4.287 espediente inaktibatu dira.

ARTATUTAKO ESPEDIENTEEN KOPURUAREN BANAKETA OGZ-EN ARABERA			
	2023. urtea	Berriak/berraktibatuak	Inaktibatuak
IPARRALDE	1.623	700	515
CAMPILLO	1.326	549	511
EL PILAR	1.319	552	442
ALDABE	1.081	465	350
SALBURUA	1.033	382	288
ZABALGANA	947	361	239
JUDIMENDI	904	392	354
LAKUA	879	355	317
IBAIONDO	878	312	285
HEGOALDE	768	281	287
ARIZNABARRA	533	222	200
ARRIAGA	504	221	232
ARANA	488	211	193
ABETXUKO	244	80	74
GUZTIRA	12.527	5.083	4.287

2023an OGZetan artatutako 12.527 bizikidetz-unitateei dagokienez, 426 bideratze egin dira Gizarte Politiken Saileko beste zerbitzu batzuetara: 208 Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bulegora, 91 Adinekoen Zerbitzura, 76 Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzura, eta 51 Gizarte Inklusioaren Zerbitzura.

Pertsonari arreta osoa eskaintze aldera, gaitasunak eta beharrak ebaluatzen dira, horrek guztiak dakartzan arazoak aztertuta. Ondorengo koadroetan, 2023an, OGZetan erregistratutako arazoak daude banakatuta, eta urtean zehar diagnostikatutako eskaeren lehen ikuspegi orokorra eskaintzen dute.

Lehen koadroak bizikidetz-unitateei lotuta erregistratutako arazoak jasotzen ditu (familiako arazoak):

- “Informazio-falta” arazoak dira erregistratutako familia-arazoen % 48,5, eta logikoa da hori, lotuta baitago OGZek orientazioa eta informazioa emateko egiten dituzten esku-hartzeekin.
- Garrantzi handieneko beste hiru familia-arazoak, ekonomiaren arlokoak izan dira: “bat ere diru-sarrerarik ez”, “elikadurari, jantzeari, higienezari eta gastuari lotutako oinarritzko beharrak ase gabe”, eta “etxebizitzarako oinarritzko gastuak ordaindu ezinik”. Aurrerago ikusiko dugun moduan, arazo ekonomiko horiek garrantzi handia izan arren, egoera gehienek, ekonomiaz harago, dimentsio gehiago hartzen dituzte.

2022AN OGZ-ETAN ERREGISTRATUTAKO FAMILIA ARAZOAK (MULTZOKATU GABE)		
Familia-arazoak multzokatu gabe	OGZ	%
Informazio falta	3.216	48,5%
Diru-sarreraren erabateko gabezia	993	15,0%
Ez du elikaduraren, jantziaren, higienezaren eta gastuaren oinarritzko premiarik betetzen	707	10,7%
Ez du etxebizitzako oinarritzko gasturik estaltzen	450	6,8%
Behin-behineko etxebizitza	171	2,6%
Ez du aparteko gasturik estaltzen	159	2,4%
Etxebizitzarik/bizitokirik gabe	107	1,6%
Familiako kideen arteko harremanak okertzea	106	1,6%
Energia-pobrezia	100	1,5%
Ez ditu osasun-gastuak estaltzen (betaurrekoak, protesiak, audifonoak,	92	1,4%
Etxebizitza desegokia	66	1,0%
Zorrak eta ordaindu beharreko atzerapenak	59	0,9%
Bikotearen arteko harremanen narriadura	57	0,9%
Etxebizitza librean utzarazteagatik etxebizitza husteko arriskua	46	0,7%
Banantze-prozesua	41	0,6%
Gizarte-babesekeko sarerik eza	34	0,5%
Ettxerik gabe	27	0,4%
Hipoteka betearaztearen ondoriozko etxebizitza husteko arriskua	23	0,3%
Beste batzuk	179	2,7%
Guztira	6.633	100,0%

Urtean zehar erregistratu diren familia-arazo berriak azaldu ondoren, arazo pertsonalak jasotzen dituen taula ere eranstean da; horien artean adinekoekin lotutako problematikak (“eguneroko jarduerak burutzeko zailtasun instrumentalak”) eta migratzaileekin lotutakoak (“lan- eta egoitzabaimenik gabeko atzerritarra”) nabarmentzen dira.

2023AN OGZ-ETAN ERREGISTRATUTAKO ARAZO PERTSONALAK (MULTZOKATU GABE)		
Arazo pertsonalak multzokatu gabe	OGZ	%
Eguneroko bizitzako jardueretarako zailtasunak (instrumentalak)	725	12,6%
Lan-baimenik eta/edo bizilekurik gabeko atzerritarra	581	10,1%
Hizkuntzarekiko zailtasuna	376	6,5%
Zailtasunak autozainketako jardueretan (oinarrizkoak)	352	6,1%
Lana lortzeko kualifikaziorik eta prestakuntzarik eza	237	4,1%
Gaixotasun fisikoa	197	3,4%
Egoera dokumental irregularrean dagoen atzerritarra	171	3,0%
Emakumeenganako tratu txar emozional/psikologikoa	156	2,7%
Beldurra eta segurtasunik eza	150	2,6%
Bizitzeko leku egokia aurkitzeko zailtasunak	130	2,3%
Langabezia	118	2,1%
Bakardadea familia-harremanekin, etengabeko laguntzarekin	108	1,9%
Emakumeenganako tratu txar fisikoa	105	1,8%
Etorkizuneko aurreikuspena	103	1,8%
Gaixotasun kronikoa	99	1,7%
Mendetasun aitortuaren egoera	97	1,7%
Bakardadea familia-harremanekin, unean uneko laguntzarekin	80	1,4%
Etiket kanpo mugitzeko zailtasunak	73	1,3%
Haurren edo nerabearen jokabidea kontrolatzeko gurasoen ezintasuna	69	1,2%
Beste batzuk	1.817	31,6%
Guztira	5.744	100,0%

Gizarte-balorazioa eta -diagnostikoa egin ondoren, esku-hartze sozial bat hasteko beharra baieztatzen badu, erreferentziazko profesionalak arreta pertsonalizatuko plana (APP) egingo du. APPan pertsonaren/familiaren egoera jasotzen da, eta helburuak definitzen, konpromisoak adosten eta garatu beharreko esku-hartzearen berezko zerbitzu/prestazio guztiak ezartzen dira. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek guztira 837 APP garatu dituzte.

ARRETA PERTSONALIZATUKO PLANA - 2023	
IBAIONDO	196
HEGOALDE	81
IPARRALDE	78
ALDABE	77
SALBURUA	67
ZABALGANA	63
ARRIAGA	51
JUDIMENDI	48
CAMPILLO	40
EL PILAR	40
ARANA	32
LAKUA	31
ABETXUKO	19
ARIZNABARRA	14
Guztira	837

Haurrak eta nerabeak babesteari dagokionez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek babesgabetasun-egoera posiblea baloratzen dute. 2023an 106 dossier baloratu dira (62 babesgabetasun ertainekoak eta 44 babesgabetasun larrikoak).

Diagnostikoa eta behar eta gaitasunen ebaluazioaren ondoren, Esku-hartze Plana egiten da, eta horrek programa eta baliabideen proposamena dakar. 2023an, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 33.300 baliabide-proposamen egin dituzte guztira:

- 17.933 proposamen (% 53,9) gizarte-inklusioko prestazioenak izan dira (GLL 12.536; Udal Prestazio Ekonomikoak 4.166; Oinarrizko estalduraren prestazioa 499; Jantoki soziala 346; Erabiltzaileentzako arreta soziala 273; Maniobra-funtsa 113).
- 5.783 baliabide-proposamen (% 17,4) kanpoko bideratzeak izan dira, batez ere Elikagai Bankua (4.534), Mendekotasunaren ebaluazioa (300), Lanbide (162) eta babesgabetasun larriaren balorazioa (44).
- 3.560 proposamenetan (%10,7), erregistratutako baliabidea zerbitzuko informazioa eta/edo profesionala izan da (gogoan izan, orientaziorako eta informaziorako eskaerei erantzutea dela Udal Gizarte Zerbitzuen eginkizunetako bat)
- 2.855 proposamen (%8,6) Udalaren etxeko laguntza-programaren bati lotutakoak izan dira.
- 1.049 proposamen (%3,2) gizarte-inklusioko baliabideak izan dira (gizarteratzeko eta laneratzeko udal-tailerrak eta ikastaroak)
- 545 proposamen (%1,6) gizarte-inklusioko harrera- eta ostatu-baliabideei lotutakoak izan dira

Proposatu diren gainerako baliabideak, intzidentzia txikiagokoak, honako taula honetan kontsulta daitezke:

BALIABIDE-PROPOSAMENAK OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAN - 2023		
Proposatutako baliabidea (multzokatua)	Guztira	%
Gizarte-inklusioko prestazioak	17.933	53,9%
Kanpora bideratzeak	5.783	17,4%
Zerbitzuko informazioa eta/edo profesionala	3.560	10,7%
Etxez Etxeko Laguntza Programa	2.855	8,6%
Gizarte-inklusioko baliabideak	1.049	3,2%
Harrera- eta ostatu-baliabideak	545	1,6%
Prebentziorako eta baloraziorako baliabideak	416	1,2%
Adinekoentzako ostatu-baliabideak edo eguneko baliabideak	358	1,1%
Adinekoentzako baliabide komunitarioak	276	0,8%
Genero-indarkeriaren biktimentzako baliabideak	170	0,5%
Familientzako babes- eta harrera-baliabideak	111	0,3%
Programazio komunitarioa	139	0,4%
Adinekoak zaintzen dituzten familiakoentzako baliabideak	26	0,1%
Beste batzuk	79	0,2%
Guztira	33.300	100,0%

2022ko urtarrilean Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bulegoa sortu zen, Gizarte Politiken sailaren baitan dagoen Komunitate Jardueren zerbitzuak bultzatuta.

Bulego hau Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bat da, izaera zentralizatu eta espezifikoarekin.

Harrezkero, mendekotasuna edo mendekotasun-arriskuan dauden pertsonak artatu dira bulego horretan, bai eta ELZ udal-baliabidea erabiltzen duten pertsonak ere. Bederatzi gizarte-langilek, psikologo batek, administrari batek eta arduradun batek osatzen dute bertako talde profesionala.

2023ko abenduaren 31n, Etxean Laguntzeko Zerbitzuaren Bulegoan 2.346 dossier aktibo zeuden, eta horietatik 1.571k etxez etxeko laguntza programa bat zuten indarrean egun horretan.

Oharra: Baliabide honen datu osatuenak atal honetan kontsulta daitezke: Etxez Etxeko Laguntza-Programa (EELP):

Arretaren profila (OGZ)

Urteko datuak ikusi ondoren, urte amaierako egoerari begiratuko diogu orain. 2023ko abenduaren 31n, 11.860 espediente zeuden indarrean, eta 11.860 bizikidetza-unitate horietan 23.933 pertsona zeuden alta emanda.

OGZ-ETAN ARTATUTAKO ESPEDIENTEEN (BIZIKIDETZA-UNITATEAK) BILAKAERA			
	2021/12/31	2022/12/31	2023/12/31
Artatutako familiak	12.534	11.248	11.860
kasu soziala	11.578	10.315	10.744
kasu psikosoziala	956	933	1.116
Artatutako pertsonak	25.320	23.022	23.933

Aurreko taulan ikusten da artatutako familien kopurua % 5,4 handitu dela, baina deigarriena da diziplinarteko tratamendua behar duten kasu psikosozialen gorakada, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalak batera esku hartzen baitute. Esku-hartze psikosozial horiek askotariko beharrei erantzuten diete: bizikidetza-arazoak, haur eta nerabeen babesgabetasuna, genero-indarkeria eta etxeko indarkeria, tratu desegokia edo txarra adinekoei edo mendekoei, arazo psikoafektiboak, baliabide pertsonaletan gabeziak eta egoera berrietara edo bizi-zikloaren etapetara egokitzeko zailtasunak. Kasu psikosozialak urtean zehar berrikusi egiten dira lehentasunezko egoera eta uneetan arreta psikosoziala aktibatzeke.

Espedienteak ez daude berdin banatuta OGZetan, zerbitzu horien ezaugarrien artean alde handiak baitaude, adibidez, eraginpeko eremuaren zabaleran, artatutako populazioan eta dituzten baliabide profesionaletan.

ARTATUTAKO ESPEDIENTEEN KOPURUAREN BANAKETA OGZ-EN ARABERA– 2023ko abenduak 31		
	Artatutako espedienteak, abenduak 31	%
IPARRALDE	1.548	13,1%
EL PILAR	1.280	10,8%
CAMPILLO	1.196	10,1%
ALDABE	1.064	9,0%
SALBURUA	999	8,4%
ZABALGANA	938	7,9%
IBAIONDO	851	7,2%
LAKUA	847	7,1%
JUDIMENDI	801	6,8%
HEGOALDE	706	6,0%
ARANA	486	4,1%
ARIZNABARRA	478	4,0%
ARRIAGA	448	3,8%
ABETXUKO	218	1,8%
GUZTIRA	11.860	100,0%

Arretaren profil orokorrari dagokionez:

- Espedienteen % 48,9 pertsona bakarrari dagozkio, baina % 32,6 seme-alabadun familiei (% 20,5 familia nuklearrak seme-alabekin eta % 12,1 guraso bakarrekoak).
- Artatutako pertsonen % 20,4k 64 urte baino gehiago ditu, eta 65-84 adin-tartean hazkundera izan dela antzeman da.
- Artatutako bizikidetzaren % 51,4an, erreferentziazko pertsonak espainiar nazionalitatea du. Azken urteotan, Latinoamerikako nazionalitatea (batez ere, Kolonbiakoa) duten bizikidetzaren arretan intzidentzia handiagoa ikusten ari da.

PROFILAREN BILAKAERA				
		2021/12/31	2022/12/31	2023/12/31
FAMILIA MOTAK	Pertsona bakarreko familia	48,9%	48,5%	48,9%
	Familia nuklearra, seme-alabekin	19,2%	21,0%	20,5%
	Guraso bakarreko familia	12,5%	12,5%	12,1%
	Familia nuklearra, seme-alabarik gabe	12,0%	10,7%	11,4%
	Familia zabaldua ahaidetasun-harremanarekin	4,6%	4,3%	4,5%
	Beste mota batzuk	2,7%	3,0%	2,7%
	Guztira (artatutako familiei dagokienez)	12.534 (100%)	11.248 (100%)	11.860 (100%)
ERREFERENTZI AZKO PERTSONAREN NAZIONALITATEA	Espainia	56,7%	52,2%	51,4%
	Magreb	14,7%	15,9%	15,1%
	Afrikako gainerako lekuak	7,9%	7,8%	7,1%
	Hego Amerika	13,0%	16,3%	18,2%
	Europa	2,8%	3,0%	3,1%
	Asia	1,9%	1,9%	2,1%
	Erdialdeko Amerika	2,3%	2,1%	2,3%
	Beste batzuk	0,7%	0,7%	0,7%
Guztira (artatutako familiei dagokienez)	12.534 (100%)	11.248 (100%)	11.860 (100%)	
SEXUA	Gizonezkoa	46,3%	46,4%	45,9%
	Emakumezkoa	53,7%	53,6%	54,1%
	Guztira (artatutako pertsonari dagokienez)	25.320 (100%)	23.022 (100%)	23.993 (100%)
ADINA	0-2 urte	3,4%	3,2%	3,1%
	3-5 urte	4,5%	4,6%	4,1%
	6-12 urte	11,8%	12,3%	11,8%
	13-17 urte	7,4%	8,0%	8,1%
	18-22 urte	5,5%	5,8%	5,7%
	23-30 urte	7,7%	7,8%	8,1%
	31-45 urte	20,3%	20,6%	20,2%
	46-64 urte	17,7%	18,5%	18,5%
	65-84 urte	13,3%	12,3%	13,5%
	85 eta gehiago	8,6%	6,9%	6,9%
Guztira (artatutako pertsonari dagokienez)	25.320 (100%)	23.022 (100%)	23.993 (100%)	

Ondorengo taulan ikusten da arazo mota batzuek eta besteek artatutako familietan duten eboluzioa eta intzidentzia.

- Arazo ekonomikoak oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik artatutako bizikidetzaren unitateen % 51,4ri eragiten dio; problematika horren garrantzia gorabehera, bi gertakari hartu behar dira kontuan:

- Arazo ekonomikoak dituzten dossier gehienek (% 80,0) beste arazo gehigarri bat izaten dute erregistratuta (batez ere laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak, osasun-arazoak edo autonomia pertsonalaren muga, bizikidetzaren desorekak, etxebizitza-arazoak...).

- Arazo ekonomikoaren eta laneratzeko arazoaren garrantziaren eboluzioari erreparatuz gero, behar bada txiki bat nabaritu da.

- Etxebizitza-arazoek % 10,5ri eragiten die, baina azken urteetan gora egin du arazo honek.
- Indarkeria matxistarekin lotuta irauten duten arazoei arreta emateko dosierren kopuru osoak egonkor jarraitzen badu ere, handitu egin da kasu berrien kopurua.
- Hazi egin da baita Psikologiako eta gizarte-laneko profesionalen esku-hartze bateratu eta diziplinartekoa eskatzen duten dosierren kopurua; gaur egun % 9,4 dira (1.116 dossier).
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emandako arretaren barruan, adinekoekin lotutako arazoek behera egin dute 2021. urtearekin alderatuta, Etxean Laguntzeko Zerbitzuaren Bulegora bideratu direlako.

BILAKAERA, INDARREAN DEN ETENGABEKO ARAZO MOTAREN ARABERA (OGZ)			
	2021/12/31	2022/12/31	2023/12/31
Arazo ekonomikoa	53,4%	54,6%	51,4%
Lan-munduratzeko zailtasunak	29,6%	29,7%	27,6%
Autonomia pertsonala mugatuta	24,1%	20,2%	20,9%
Gizarteratzeko zailtasunak	17,6%	18,3%	17,0%
Osasuna	17,4%	14,8%	14,1%
Bizikidetzarazoak	11,4%	11,1%	9,5%
Etxebizitza-arazoak	8,9%	9,9%	10,5%
Bakardadea/isolamendua	6,3%	6,1%	6,0%
Haur eta nerabeen babesgabetasuna	5,7%	5,7%	5,7%
Arazo psiko-afektiboak	4,2%	4,2%	3,6%
Indarkeria matxista	4,6%	4,6%	4,0%
Baliabide pertsonaletan gabeziak	3,6%	3,7%	3,3%
Eskolatzeko zailtasunak	2,1%	2,1%	1,8%
Adinekoen aurkako tratatu txarrak/desegokiak	0,2%	0,1%	0,2%
Familiak indarrean, guztira	12.534 (100%)	11.248 (100%)	11.860 (100%)

Orain arte, OGZe lotutako arretari, arazoei eta OGZek proposatutako baliabideei buruz aritu gara. Hala ere, Sailaren programa eta baliabideetako datu espezifikokoak aurrerago azalduko ditugu.

Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua (UGLZ)

Urteko egun guztietan eskaintzen da zerbitzu hau Arabako Lurralde Historikoan gertatzen diren gizarte-larrialdi egoeretan berehalako arreta eskaintzeko.

Talde psikosozial bat du zerbitzuak eta arreta presentziala eskaintzen du 08:00etatik 22:00etara, eta guardia-zerbitzua ere eskaintzen du 22:00etatik 08:00etara.

Honako hau hartuko da gizarte-larrialdiko egoeratzat: kausa naturalak edo eragindakoak direla medio aurreikusi gabeko gertakari batek eragindako egoera, gaitasun pertsonalak, bizirauteko baliabideak eta bitartekoak, gizarteko eta familiako harremanak edo sareak, eta segurtasuna eraginpean hartzen dituen, eta horren ondorioz, eraginpeko pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen direnez, larrialdiko lehen arreta, berehalakoa eta ezinbestekoa behar dute, egoera hori ez larriagotzeko, eta kalte handiagorik ez eragiteko.

UDALAREN GIZARTE LARRIALDIETARAKO ZERBITZUA (UGLZ)			2021	2022	2023
ARTATUTAKO FAMILIAK 1. OHARRA (*)	Familien izaera eta egoera	Familia aktibo egoiliarak	368	476	546
		Iragaitzako familia aktiboak	367	521	597
		Familia berraktibatu egoiliarak	498	526	564
		Iragaitzako familia berraktibatuak	153	152	146
	Familia motak	Pertsona bakarreko bizikidetza-unitatea	977	1.159 (*)	1.324 (*)
		Adingabeak dituen bizikidetza-unitatea	231	366	351
		Beste mota batzuk	178	150	178
	Sexua	Emakumezkoa (erreferentziako pertsona)	471	644	692
		Gizonezkoa (erreferentziako pertsona)	915	1.031	1.161
	Nazionalitatea	Atzerritarra (erreferentziako pertsona)	808	1.065	1.246
Nazionala (erreferentziako pertsona)		578	610	607	
Artatutako familiak, guztira			1.386	1.675	1.853
Familia-kopurua, abenduaren 31n			559	728	768
PERTSONAK 1. OHARRA (*)	Nazionalitatea	Atzerritarrak	1.233	1.711	1.962
		Nazionalak	920	1.001	972
	Sexua	Gizonezkoak	1.328	1.568	1.719
		Emakumezkoak	825	1.144	1.215
	Adina	18 urtetik behera	504	691	704
		18-23 urte	227	256	290
		24-34 urte	364	496	557
		35-50 urte	584	715	798
		51-64 urte	326	374	382
		65 urte edo gehiago	148	180	203
		Batez besteko adina	34,6	33,7	33,9
	Artatutako pertsonak, guztira			2.153	2.712

(*) Pertsona bakarreko 1.159 bizi-unitate horietatik 53 adingabeak dira. Pertsona bakarreko 1.324 bizi-unitate horietatik 74 adingabeak dira.

UDALAREN GIZARTE LARRIALDIETARAKO ZERBITZUA (UGLZ)		2021	2022	2023
UNEAN UNEKO ESKU-HARTZE PROFESIONALETAK O ARAZOAK	Arazo ekonomikoa	771 (25,0%)	858 (25,7%)	962 (25,9%)
	Gizarteratzeko zailtasunak	649 (21,1%)	557 (16,7%)	522 (14,1%)
	Etxebizitza-arazoak	566 (18,4%)	547 (16,4%)	761 (20,5%)
	Informazio-falta	359 (11,6%)	611 (18,3%)	646 (17,4%)
	Lan-munduratzeko zailtasunak	245 (7,9%)	307 (9,2%)	296 (8,0%)
	Bizikidetzarazoak	151 (4,9%)	107 (3,2%)	106 (2,9%)
	Haur eta nerabeen babesgabetasuna	142 (4,6%)	120 (3,6%)	149 (4,0%)
	Osasuna	59 (1,9%)	97 (2,9%)	96 (2,6%)
	Indarkeria matxista	68 (2,2%)	78 (2,3%)	91 (2,5%)
	Beste arazo batzuk	72 (2,3%)	54 (1,6%)	81 (2,2%)
Arazo kopurua orotara	3.082 (100%)	3.336 (100%)	3.710 (100%)	

(*) 1. OHARRA: Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuaren (UGLZ) esku-hartze motak unean unekoak izaten dira gainerako unitateenak ez bezala, eta beraz, "artatutako familiak" esaten diegu urtean zehar UGLZn erregistratutako jardueraren bat izan dutenak, eta "artatutako pertsonak" dira urtean zehar jarduerak izan dituzten familia-espedienteetan alta emanda egon direnak.

Udalaren Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuaren prestazioetan hauek sartzen dira:

- Gizarte Zerbitzuei dagozkienak:
 - Informazioa
 - Balorazioa
 - Diagnostikoa
 - Orientazioa
 - Lagun egite soziala
 - Esku-hartze psikosoziala, bereziki, euste emozionalerako xedeekin
- Osagarriak: mantenua, larrialdiko ostatua...

UDALAREN GIZARTE LARRIALDIETARAKO ZERBITZUA (UGLZ) Proposatutako baliabideak - 2023. urtea	
Zerbitzuko informazioa eta/edo profesionala	1.676
Arreta sozial ekonomikoa	571
Kanpora bideratzea, Gizarte Ongizateko Foru Erakundera (Harrera eta Larrialdi Zentroa)	102
Harrera- eta ostatu-baliabideak	146
Kanora bideratzea, Gizarte Ongizateko Foru Erakundera (Berehalako Harrera Zentroa)	31
Jantoki soziala	154
Beste batzuk	23
Guztira	2.703

05 Herritarrei oro har zuzendutako oinarrizko zerbitzu eta prestazioak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL)

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen baitan inskribatuta dago, eta aldizkakoa ez den prestazio ekonomiko bat da, neurri batean Eusko Jaurlaritzak finantzatua. Prestazio honen helburu nagusiak inklusioa eta bazterkeria prebenitzea dira.

Helburu jakin baterako da, eta zertarako eman den, horretarako bakarrik erabili ahal izango da. Gainera, Diru-sarrerak Bermatzeko Erretan bezala, subsidiarioa, osagarria eta besterenezina da.

Gastu espezifiko ohikoak edo ezohikoak ordaintzeko da; hain zuzen, gizarte-bazterkeriazko egoerak prebenitzeko, arintzeko edo saihesteko beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko.

Honako gastu hauek sartzen dira hor:

- Ohiko etxebizitzaz edo ostatuaz gozatzeko eta bertan mantentze-lanak egiteko beharrezkoak diren gastuak.
- Bizikidetzaren unitateko pertsona baten edo batzuen oinarrizko beharrak asetzeko gastuak, adibidez, sistema publikoek eskaintzen ez dituzten arropak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-arreta.
- Ohiko etxebizitza edo ostatua bizigarri egiteko eta oinarrizko ekipamenduz hornitzeko beharrezkoak diren gastuak.
- Aurreko bi ataletan adierazitako gastuetakoren batek sortutako zorpetze-gastuak, edo bizitzeko oinarrizko beharrak asetzeko egin beharreko gastuek sortutako zorpetze-gastuak.

Oro har, eta Lege honek jasotako salbuespenak aintzat hartuta, Gizarte Larrialdiko Laguntzak jaso ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean eskaera-data baino gutxienez sei hilabete lehenagotik erroldatuta daudenek, egiaztatzen badute, ez dutela Legeak adierazitako gastu espezifikoek aurre egiteko behar beste baliabiderik.

GLL KONTZEPTUAREN ARABERA, 2023			
	2023ko zenbatekoa	Titularrak urtean zehar	Batez besteko zenbatekoa titular eta urte bakoitzeko
Energia-gastua/mantentze-lanak	2.238.500 €	1.966	1.139 €
Aurretiko zorpetzea	2.125.764 €	1.043	2.038 €
Etxebizitzaren alokairua	1.668.817 €	1.418	1.177 €
Lehen mailako beharrak	238.956 €	568	421 €
Kredituen interesa/amortizazioa	143.504 €	71	2.021 €
Altzariak eta etxetresna elektrikoak	30.193 €	43	702 €
Etxebizitza berria eskuratzea	8.795 €	9	977 €
Konponketa eta instalazioak	4.695 €	6	782 €
Guztira (*)	6.459.223 €	3.332	1.939 €

OHARRA (*) GLLetan 2023an egin den gastua, guztira, 6.459.223€-koa izan da, eta horietatik 4.866.476€ Eusko Jaurlaritzak finantzatu ditu. GLLn egindako 6.459.223€-ko gastu horren onuradun izan dira 3.332 familia; alegia, 6.800 pertsona.

Udal Prestazio Ekonomikoen Programa eta Programatik kanpoko beste prestazio batzuk

Programa honetan daude sartuta Udalaren prestazio ekonomikoak eta dirulaguntzak, aldizkakoak ez direnak, gizarte-esklusioko egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoari aurre egiteko behar beste baliabide ez duten Gasteizko pertsonen zuzendutakoak.

Prestazio horiek zertarako eman diren, horretarako bakarrik erabili behar dira, eta denbora-tarte jakin baterako ematen dira. Berritu egin daitezke behar-egoerak bere horretan jarraitzen badu eta betiere, prestazioen hartzaileak dagozkion betebeharrak eta Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP) betetzen badu.

Egindako eskaera oinarritzko behartzat eta babes sozialerako beste sistema batzuk eskaini ezin duten behartzat hartu behar dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Prestazioen programa hau teknikarien balorazio profesionalean oinarrituta egoten da beti.

Honako atal hauetan sailkatzen dira programa honen prestazioak:

- Oinarrizko beharrak
 - Oinarrizko beharra: elikagaiak, higiena, arropa/oinetakoak eta farmaziako gastuak biltzen dituen diruzko prestazioa.
 - Oinarrizko estalduraren prestazioa: Dirurik gabeko prestazioa, dendetan txartel ez-finantzarioaren bitartez ordaintzeko. Prestazio honek elikadura- eta higiene-gastuak estaltzen ditu.
 - Jantoki soziala: dirurik gabeko prestazioa, baliabide ekonomikorik edo gutxiegitasunik ez izateaz gain, etxean modu autonomoan lan egitea eragozten dieten edo etxebizitzarik ez duten pertsoneri edo familiei zuzendua.
- Etxebizitza-prestazioak
- Gizarte- eta osasun-prestazioak
- Gizarteratzeko laguntzak
- Gastu pertsonaletarako laguntzak
- Hileta-gastuetarako prestazioak

UDAL PRESTAZIO EKONOMIKOEN PROGRAMA, 2023		
Udal prestazioak (ekonomikoak)	Urteko unerren bateko titularrak (bizikidetza-unitateak) guztira	1.415
	Abenduko titularrak (bizikidetza-unitateak) guztira	153
	Urteko gastu osoa	2.666.312 €
	Oinarrizko premiak	2.430.745 €
	Etxebizitza	142.408 €
	Gizarteratzeko laguntzak	31.814 €
	Prestazio soziosanitarioak	30.173 €
	Bestelakoak	20.896 €
	Gastu pertsonalen prestazioa	10.277 €
Oinarrizko estaldurarako prestazioa	Urteko unerren bateko titularrak (bizikidetza-unitateak) guztira	185
	Abenduko titularrak (bizikidetza-unitateak) guztira	58
	Urteko gastu osoa	139.916 €
Beste laguntza ekonomiko batzuk	Sendagai, arropa, hileta-zerbitzu eta abarrerako txartelak	56.358 €
	Bakarkako laguntzak (larrialdiko ostatuak)	133.720 €

Jantoki soziala

Udalaren prestazio ekonomikoen programaren barruan, jantoki soziala oinarritzko elikadura-premiei erantzuten dien zerbitzua da. Bazkari- eta afari-zerbitzuak eskaintzen ditu, bizikidetzak, hazkunde pertsonala eta harreman pertsonalak sustatzen dituen espazio batean. Elikadura-, higie- eta osasun-ohiturak zein pertsonen arteko harremanak hobetzea sustatzen du, eta, beraz, funtsezko baliabidea da pertsona bakoitzaren gizarteratze-plana babesteko. 2023. urtean zehar, Bizente Paulekoaren kalean "Bidelan" espazio berria sortzeko lan egin da. Espazio horrek gizarteratzeko eta laneratzeko ikastaroak eta lantegiak txertatuko ditu jantoki sozialarekin.

JANTOKI SOZIALA	2022	2023
Onuradunen kopurua urteko uneren batean	173	185
Abenduan bertaratutako eguneko batez bestekoa	32	34
Bazkari eta afarien kopurua	21.037	24.976

Udal Prestazio Ekonomikoen Programatik kanpoko beste prestazio batzuk

Izaera subsidiarioa dute prestazio hauek, eta indarrean den legerian aurreikusitako beste mota bateko baliabide ekonomikoen osagarriak dira. Sistema publikoek estali gabeko oinarritzko beharrak asetzeko behar adinako baliabide ekonomikorik ez duten pertsonari eta familiei laguntzeko dira. Honako prestazio hauek dira, besteak beste:

- Elikagai-bankua:

Gasteizko Udalak lankidetzak-hitzarmen bat du sinatuta Elikagai-bankuarekin, eta hitzarmen horren bidez, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileek udal-prestazioak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten zaugarritasun-sozial bereziko kasuak baloratu eta bertara bideratzen dituzte.

2023AN ELIKAGAI-BANKURA EGINIKO BIDERATZEAK

2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden deribazioak: 686 bizikidetzak unitate

- Baliabide urriak dituzten pentsiodunen ohiko etxebizitzan energia-gastua finantzatzeko laguntza ekonomikoa (EGL):

Baliabide ekonomiko urriak dituzten pentsiodunen ohiko etxebizitzan energia-gastua finantzatzeko laguntza ekonomikoa da, eta gastu hauek estaltzen ditu: elektrizitate eta gas hornidura, komunitate-gastuak baldin eta hor sartuta badaude berokuntzako gastuak eta beste erregai batzuenak.

EGL – 2023		
	Lehen seihiakoa	Bigarren seihiakoa
Aplikazioak	123	55
Emakida	38 (19 GLLekin y 19 GLLarik ez)	22 (8 GLLekin y 14 GLLarik ez)
Ukapenak/erretiratzeak	85	33

- Desgaitasuna eta mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuentzako aparkatzeko txartela

Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuak aparkatzeko txartelaren eskaera, abiatzeko edo iritsi beharreko lekutik ahalik eta gertuen aparkatu ahal izateko.

APARKATZEKO TXARTELA, 2023
2023ko urtarrilaren 1ean indarrean ziren txartelak: 3.631

Etxeko Laguntza Programa (ELP)

Etxeko laguntza zerbitzu osoa, balioaniztuna eta komunitarioa da, eguneroko bizimoduko funtsezko jarduerak egiteko arazoak dituzten pertsoneri/familiei zuzendua. Zuzeneko arreta eskaintzen zaie etxe-ingurunean, haien ohiko testuinguruan gelditzen eta integratzen laguntzeko, autonomia funtzionalean dituzten murrizketak konpentsatzeko eta familiako bizikidetzabaldintzak hobetzeko esku-hartze espezifikoak eginez..

Etxeko Laguntza Programak badu prebentziotik, laguntzatik eta heziketatik ere, eta honako lan hauek egiten dira:

- Autonomia-galera prebenitzea eta/edo konpentsatzea, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko eta/edo etxe-ingurunea bizitzeko baldintza egokietan edukitzeko laguntza eskainiz.
- Arreta-sare naturala osatzen duten zaintzaileei laguntzea.
- Erabiltzaileen haien ingurune komunitatean integratzen laguntzea, isolamendu-egoerak saihestuz.
- Bizikidetzagirotza hobetzea arriskua ekar dezaketen egoerak saihesteko esku-hartzeak eginez.
- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea behar izatea ekar dezaketen behar-egoerak hautematea.

Etxeko Laguntza Programan hiru prestazio-modalitate daude:

- **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ)**, behar bezalako prestakuntza eta ikuskapena duten langileen bidez, prebentziorako eta birgaitzeko zenbait jardura eskaintzeko, etxean laguntzeari, arreta pertsonalari eta lagun egiteari lotutako jarduerak eginda. Hiru modalitate daude Zerbitzu honetan: Oinarrizko EELZ, mendekotasunaren EELZ eta zaintzaileek arnasa hartzeko EELZ.

- **Bazkaria etxera eramateko zerbitzua**, bazkaria prestatu eta etxeraino eramateko.

- **Gizarte eta Hezkuntza alorretan esku hartzeko Programa:** Ikus "Haurrak, nerabeak eta familia" atala: familiari laguntzeko programak

Gainera, bi lankidetzahitzarmen daude: Gurutze Gorriarekin, adinekoei gizarte-laguntza emateko programa bat garatzeko, eta Arabako Farmazialarien Elkargoarekin, medikazioaren erabilera hobetzeko, medikazioa dosifikatzeko sistema pertsonalizatuaren bidez.

ETXEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN BILAKAERA 2021-2023 ALDIAN				
		2021	2022	2023
OINARRIZKO EELZ	Ordu kopurua urtean	81.938	90.293	106.418
	Urteko uneren bateko indarrean egondako espediente kopurua	1.290	1.419	1.674
	Urteko uneren bateko indarrean egondako pertsona kopurua	1.751	1.926	2.273
	Abenduaren 31n indarrean zegoen espediente kopurua	887	964	1.165
	Abenduaren 31n indarrean zegoen pertsona kopurua	1.089	1.195	1.447
MENDEKOTASU NARI LOTUTAKO EELZ	Ordu kopurua urtean	149.247	437.005	480.449
	Urteko uneren bateko indarrean egondako espediente kopurua	1.035	2.795	3.242
	Urteko uneren bateko indarrean egondako pertsona kopurua	1.035	2.795	3.242
	Abenduaren 31n indarrean zegoen espediente kopurua	637	1.561	1.851
	Abenduaren 31n indarrean zegoen pertsona kopurua	637	1.561	1.851
ARNASA HARTZEKO EELZ	Ordu kopurua urtean	9.161	9.666	16.398
	Urteko uneren bateko indarrean egondako espediente kopurua	92	110	180
	Urteko uneren bateko indarrean egondako pertsona kopurua	92	110	180
	Abenduaren 31n indarrean zegoen espediente kopurua	41	51	95
	Abenduaren 31n indarrean zegoen pertsona kopurua	41	51	98
BAZKARIA ETXERA (*)	Urteko uneren bateko indarrean egondako espediente kopurua	302	286	283
	Urteko uneren bateko indarrean egondako pertsona kopurua	386	365	363
	Abenduaren 31n indarrean zegoen espediente kopurua	205	194	193
	Abenduaren 31n indarrean zegoen pertsona kopurua	236	227	228
LAGUN EGITE SOZIALERAKO PROGRAMA HITZARMENA GURUTZE GORRIAREKIN	Gauzatutako lagun-egiteak	1.384	908	1.862
	Lagun-egiteetan artatutako pertsonak	144	86	193
	Haien ingurunean lagun-eginda artatutako pertsonak	47	52	41
	Jarraipena telefonoz: dei kopurua	6.470	6.380	4.800

(*) Oharra: 2023ko abenduaren 31n, **105 pertsona zeuden bazkaria etxera eramateko zerbitzuaren itxaron-zerrendan.**

Komunitate Arretako Programak (KAP)

Komunitate Arretako Programak Komunitate Jardueren Zerbitzuak ezarritako helburu orokorretatik abiatuta definitzen dira, eta zenbait proiektutan gauzatzen dira. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoko talde bakoitzak prestatzen ditu proiektu horiek jarduera-eremu bakoitzerako, eskola-egutegiaren arabera; hau da, urte bateko irailaren eta hurrengoko ekainaren arteko aldietarako.

Komunitate Arretako Programak hiru bloke handitan multzokatzen dira:

- **Informazioa eta gizartearen sentsibilizazioa**. Helburua da, besteak beste, gizarte-inklusioari eragiten dioten arrisku- eta babes-faktoreak jorratzea, populazioaren zenbait kolektibo eta sektoreren bereizgarri diren eguneroko bizimoduarekin lotutako gairi buruzko informazioa-prestakuntza ematea eta eskubideei, betebeharrei eta gizarte-baliabideei buruzko informazioa ematea.

- **Gaitasun soziala eta garapen pertsonala**. Helburu nagusia da pertsonari, familiari edo komunitateari gertatzen zaizkion gertaerei behar bezala aurre egin, eta horiek gainditzen laguntzen duten trebezia eta baliabide pertsonalak garatzen laguntzea.

- **Parte-hartze komunitarioa eta elkartasunezko babesa**. Parte-hartze aktiboa indartu eta elkarte-bizitza sustatuko duten ekimen, proposamen eta proiektu indibidual edo taldekoak garatzen laguntzeko edo babesteko, eta laguntza beharra duten zenbait egoera sozialekin sentsibilizatutako gizarte-ehun boluntario bat sortzeko aukera emango duten elkartasunezko kezka pertsonalak pizteko, eratzeko eta bideratzeko.

Herritarrei oro har eta sektore espezifikoari zuzenduta, programa bakoitzaren helburuen arabera. Programen plangintza, antolaketa, jarraipena/ebaluazioa egiteko eta programaren bat gauzatzeko, bertako giza baliabideetara jotzen da (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoko profesionalak). Programak eta proiektuak ezartzeko, zerbitzuak emateko kontratua egiten da.

Ezarritako proiektu motak:

- **“Baloreen hezkuntza”**: Hona hemen programatutako jarduera batzuk: “Ausartu dantza egitera”, “Ekojoku”, “Aktibatu”, “Maskulinitasun berriak”.

- **“Osasunerako hezkuntza”**: Hona hemen proiektuko jarduera batzuk: “Zahartze aktiboa”, “Mindfulness: arnasa hartzen eta emozioak kudeatzen ikasi”, “Sukaldaritza gazteentzat”, “bizitza koloretan”, etab.

- **“Trebetasun sozio-kognitiboak”**: Hona hemen proiektuko jarduera batzuk: “Jarduera fisikoa eta zentzumenero oromena”, “Oroimena eta jarduera fisikoa”, “Gogoratzen ikasi eta ez duzu ahaztuko”, “Erlaxatzen ikasten, antsietatea maneiatzen”, “Oroimena eta norbere buruaren zainketa”, “Zentzumenero memoria”, “Diverkintza”, “Hiri-dantza”, “Etxean ibiltzeko moduko clown lantegia”, “Ikasten gozatu”, “Ikasteko txokoa”, “Ikasteko txokoa irekia”, “Ikastxoko”,

“Gaztelera, eta zerbait gehiago, etorkinentzat”, “Barreterapia”, “Ongi sentitzea 60 urteetatik aurrera”, "gaztelaniaz bizi direnak", etab.

- “Hezkuntzako trebetasunak”: Hona hemen proiektu honetako jarduerak batzuk: “Familia, ikasleku”, “Autozainketa eta indarkeriarik gabeko komunikazioa”, “Aro digitalean heztea”, “Igeriketa hezitzailea”, “Nerabezaroa: gurasoak ahaldunduz”, "Futboleko hezkuntza-proiektua", eta abar.

- “Sustapena” eta “askotariko gaiak”: Hona hemen proiektuko jarduerak batzuk: " Autoestimua eta ongizatea emakumeentzat ", “Biodantza”, “Dantzaren bidez adierazi”, “Adinekoak konpainia onean” talde egonkorra, “Autoestimua eta ongizatea emakumeentzat”, “Nik ere badakit sakelako telefonoa erabiltzen”, “ezagutzen”, “ongizaterako errezetak”, " erlaxamendu ", etab.

JARDUERAK PROIEKTUKA ETA ADIN SEKTOREKA 2023KO PROGRAMAZIO KOMUNITARIOAN									
PARTE-HARTZAILEAK	1.951 (erabilera)						% 24,76 GIZONEZKOAK		
							% 75,24 EMAKUMEZKOAK		
BATEZ BESTEKO ADINA	51,6 urte								
PROGRAMATUTAKO JARDUERAK	64 jarduera desberdin, 260 taldetan multzokatuta (hilekoak, hiruhilekoak edo urtekoak)								
	SEKTOREAK	Adinekoak	Helduak	Emakumeak/ama k	Aitak/amak edo familiak	Gazteak/nerabea k	Umeak	Irekiak	GUZTIRA
PROIEKTUAK									
BALOREEN HEZKUNTZA			1			4	3	2	10
OSASUNERAKO HEZKUNTZA		8	8			4		12	32
TREBETASUN KOGNITIBO/SOZIALAK		47	6	2	4	29	42	15	145
TREBETASUN /HEZKUNTZAKOAK			3		6	9	5	2	25
SUSTAPENA		15			2	5		4	26
BESTE BATZUK		4	2		5	2	5	4	22
GUZTIRA		74	20	2	17	53	55	39	260

06 Haurrak, nerabeak eta haien familiak

2024eko urtarrilaren 1ean, 18 urtetik beherako 43.009 lagun zeuden Gasteizen erroldatuta. Populazio hori ere Udaleko Gizarte Zerbitzuen lanaren xede da, eta haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko helburuarekin, zenbait programa jartzen dira abian, honako hauek lortzeko:

- ume eta nerabeetan nahiz haien familietan alderdi positiboak sustatzea
- arrisku- eta babesgabetasun-egoerak prebenitzea
- umeen parte-hartzea indartzea

Populazio adingabe horretatik, Udaleko Gizarte Zerbitzuek 7.414 umeri (% 17,2) eskaintzen diete arreta; eta artatutako pertsona horietatik 1.032 umeak “haur eta nerabeen babesgabetasuna” motako arazoren bat dute.

	2022/01/01	2023/01/01	2024/01/01
Erroldatutako adingabeak	43.381	43.304	43.009
Udal Gizarte Zerbitzuetan artatutako adingabeak	7.695	7.569	7.414
“Babesgabetasun” motako arazoak dituzten adingabeak	1.092	1.057	1.032

Orain, Udaleko Gizarte Zerbitzuek artatutako 1.032 adingabeen babesgabetasun-arazoak eta maila ikusiko ditugu. 2024eko urtarrileko datuak dira:

Babesgabetasun-arazoak bereizita	Mailarik gabe	Susmoa	1. maila	2. maila	3. maila	Guztira
Behar psikikoekiko utzikeria	2	30	50	229	69	403
Zaugarritasuna babesgabetasunarekiko	196	9	16	50	13	291
Prestakuntza-beharrekiko utzikeria	6	15	22	144	61	253
Gurasoen ezintasuna jokabidea kontrolatzeko	5	32	30	85	39	197
Behar fisikoekiko utzikeria	2	11	21	85	45	172
Tratu txar psikikoa: tratu txar emozionala	1	17	12	86	36	167
Bikotekideen indarkeria egoeretara esposizioa	1	20	23	59	23	140
Instrumentalizazioa gatazketan	4	34	25	39	18	131
Segurtasun beharrekiko arduragabekeria	8	10	15	57	30	128
Tratu txar fisikoa	1	20	10	52	19	109
Guztira (oharra)	220 pert.	198 pert.	131 pert.	356 pert.	127 pert.	1.032 pert.

Oharra: Pertsona batek arazo bat baino gehiago izan ditzake erregistratuta. Arazo garrantzitsuenak bakarrik daude sartuta.

Gainerakoak, hau da, Udaleko Gizarte Zerbitzuek artatutako 6.382 adingabeak, babesgabetasun-arazorik ez dutenak, bizikidetzaren unitatean dituzten arazoengatik zailtasun sozialak dituzten umeak dira. Bizikidetzaren unitate bakarrean arazo mota bat baino gehiago izan daitezkeela kontuan hartuta, babesgabetasun-egoeran ez dauden 6.382 ume horien familiakoek dituzten arazo nagusiak aipatuko ditugu: % 67,0 arazo ekonomikoak dituzten familietan bizi dira, % 40,2 lan-munduratzeko zailtasunak dituztenetan, % 24,9 gizarteratzeko zailtasunak dituztenetan, % 17,7 bizikidetzaren arazoak dituztenetan, eta % 15,8 etxebizitzaren arazoak dituzten familietan.

Haur eta Nerabeentzako Tokiko Plana - HANUP

Gasteizko Haur eta Nerabeentzako II. Tokiko Planak (II. HANUP) gure hiriko haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea bermatzeko aginduari erantzuten dio. 2018ko maiatzaren 24an onartu zuen Osoko Bilkurak, eta ordutik hona haurtzaro eta nerabezaroaren arloan Udalaren jardura koordinatzeko tresna izan da. Udalaren 24 sail zein zerbitzuren ekintzak biltzen ditu, 100etik gora. 2023an, indarrean egon da II. HANUParen luzapena, 67 ekintzarekin; horietako 15 berriak dira. Orobat, parte hartzeko prozesuarekin jarraitu da, III. HANUP lantzeko.

Sustapen, prebentzio eta parte hartzeko programak

Gure hiriko umeen eta nerabeen ongizatea sustatzeko programa. Arazo psikosozialak prebenitzen eta ume zein nerabeen garapen pertsonala eta soziala optimizatzen laguntzea dute helburua.

- Familiei zuzendutako jarduerak, gurasotasun positiboan oinarrituta. Helburua familiei laguntzea da, ume guztiek dituzten zaintza, estimulazio, gainbegirada, orientazio eta maitasun-beharrak asetzeko gaitasunak indartu eta hobetzeko.
- Umeei eta nerabeei zuzendutako jarduerak, psikologia positiboan oinarrituta, helburua ume eta nerabeen gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea izanik.
- Komunitateari zuzendutako jarduerak, komunitateak ume eta nerabeekin duen harremanean jardunbide egokiak sustatzeko.

Emozio-lantegien programa

Programa honen helburua emozioen mundura gerturatzen hastea da, emozioak adierazten eta gizarteratzen laguntzen duten espazioak sustatuz. Emozioen identifikazioa lantzen da emozioak behar bezala kudeatzeko lehen urrats gisa, emozio horiek egoera bakoitzean egoki kudeatzeko eta adierazteko beharrezkoak diren tresnak eskuratzeko espazio bat sortuta. Lantegi hauek, batez ere, umei eta nerabeei egoten dira zuzenduta. Hala ere, familia osoari, aitei/amei, irakasleei eta ume nahiz nerabeekin lan egiten duten gizarte-eragileei zuzendutako lantegiak ere izaten dira. Ikastetxeetan eta gizarte-etxeetan egiten dira.

EMOZIO LANTEGIA		2020-2021 IKASTURTEA	2021-2022 IKASTURTEA	2022-2023 IKASTURTEA
Lantegiak		291	354	289
	Neskak	2.797	2.929	2.655
	Mutilak	2.682	3.190	2.912
Parte-hartzaileak	Irakasleak	0	0	0
	Aitak	70	8	6
	Amak	14	26	40
	Guztira	5.563	6.153	5.613

Haur eta nerabeek parte hartzeko AKTIBATU programa

Haurren eta Nerabeen Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubideak gauzatzeko bidean aurrera egitea, Gasteizko haur eta nerabeek haien eskubideak ezagutzea eta eskubide horiek benetan gauzatzea dira helburuak. Gainera, ume eta nerabeen parte-hartzea sustatzea ere helburu du, ikaskuntza-esperientzien eta parte-hartze taldeen bidez, umeek haien iritziak emanez, hiriaren zati aktibo diren neurrian.

Zenbait jarduera egiten dira:

AKTIBATU	2021-2022 IKASTURTEA	2022-2023 IKASTURTEA
Eskubideen Batzordeak	1.055 parte-hartzaile	1.055 parte-hartzaile
Hirikoak, esperientziak partekatzen	177	177
Hirikoak, neuk ere eraikitzen dut nire hiria	619 parte-hartzaile	619 parte-hartzaile
Parte hartzeko foroak	396 parte-hartzaile	396 parte-hartzaile
Planeta Aktiba(tu)	600 parte-hartzaile	591 parte-hartzaile
Harrera Udalean	*Oharra	* Oharra
Azaroaren 20ko Udabatz	3 ikastetxe	14 ikastetxe
Haurren eskubideen erakusketa	6 gizarte etxeak	6 gizarte etxeak
Airea hobetzeko planaren parte-hartze prozesua	48 parte-hartzaile	--
Umeek ere bai irratsaioa siberia Irratian	7 programak/ 13 taldeak	5 programak/ 16 taldeak
Blog Aktibatu	61 sarrerak	61 sarrerak
Parte-hartzaileak guztira	2.847 parte-hartzaile	2.852 parte-hartzaile
Ikastetxeak	19 ikastetxe	23 ikastetxe

* Oharra: ez zen egin, hauteskunde-aldiaren ondorioz.

Haur eta Nerabeen Elkargunea

8-14 urteko ume eta nerabeei zuzendutako parte-hartze organoa. Espazio bat da, eta aukera ematen die ume eta nerabeek iritzia emateko, dituzten itxaropenak elkarri kontatzeko eta intereseko zaizkien gaiet buruz edo hiriko parte aktibo eta arduratsu diren aldetik eragiten dieten gaiet buruzko proposamenak egiteko. Hiru hilean behingo saioak egiten dituzte, eta abian diren parte-hartze foroetako ordezkari diren umeek parte hartzen dute (espazio honetara ekartzen dituzte foroetan landutako iritziak eta proposamenak). Interesa duten umeek haien kasa ere har dezakete parte, aurretik Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuan horretarako eskaera eginda.

Organo honek, gainerako Elkargunek bezalaxe, bildutako proposamenak eta hartutako erabakiak Udabatzaren dagokion Batzordera helarazten ditu, informazioa emateko edo jarduerak proposatzeko. Era berean, proposamenak hiriko Gizarte Kontseilura ere helarazten dira, egiten dituzten txostenetan txertatzeko.

ELKARGUNEA	2020 -2021 IKASTURTEA	2021 -2022 IKASTURTEA	2022 -2023 IKASTURTEA
Parte-hartzaileak	106	177	109
Saioak	3	3	3

Gurasotasun positiborako programak

Gurasotasun positiboa gurasoen jokabide bat da, umearen erabateko garapena helburu duena, umearen zaintza, gaitasunen garapena eta mugak aitortzea eta ezartzea aintzat hartuta; hori bai, hori guztia, indarkeriarik gabe. Honako hauek ditu jarduera-ildoak:

- Udalerrian egiten diren gurasotasun-positiboko ekintzak egokitzea, hobetzea eta sustatzea
- Guraso eta zaintzaileak gurasotasun positiboari dagozkion gaitasunetan gaitzea
- Gurasotasun positiboak funtsezkoak dituen alderdietan herritarrak sentsibilizatzea

Eta horiek denak garatzeko, honako programa hauek planteatzen dira:

Jabe zaitez seme-alabak hezteko duzun gaitasunaz

Programa honek laguntza eskaintzen dio familia bakoitzari seme-alaben heziketan dituen indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatzeko; baita seme-alabak gurasotasun positibotik hazteko eta hezteko orientazioa ere. Ebaluazioa, orientazioa eta jarraipena ditu.

JABE ZAITEZ ZURE GAITASUNAZ PROGRAMA		2021-2022 IKASTURTEA		2022-2023 IKASTURTEA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Parte hartutako familiak		34		39	
Parte-hartzaileak	Helduak	31	34	38	39
	Umeak	19	16	22	19

Senidegune: familientzako heziketa gunea

Senidegune, familientzako gunea, prebentziorako programa bat da, gurasoekin eta haien seme-alabekin aldi berean aritzen den prebentzio-programa hain zuzen, zuzeneko esku-hartzeak taldean egiten dituena. Umeen ongizatea hobetzea eta gurasoen heziketa-lana indartzea eta babestea dira helburuak. Oro har, lantegiak astean bi egunetan ematen dira, eta hiru hilabete irauten dute. Ikasturte honetan, kasu jakin batzuetan, astean behin izan dira saioak. Berritasun gisa, aurten zenbait lantegi tematiko egin dira hilero Hezkuntza Zerbitzuarekin lankidetzan, udal eskoletan eta Haurreskolak partzuergokoetan.

SENIDEGUNE PROGRAMA		2021-2022 IKASTURTEA		2022-2023 IKASTURTEA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Familientzako lantegiak		11		17	
Parte-hartzaileak	Helduak	67	25	216	79
	Umeak	44	30	190	104
Gaikako tailerrak hileko formatuan				8	
Parte-hartzaileak	Helduak			57	30
	Umeak			44	34

Jardunbide egokiak umeen eta nerabeen arretan eta heziketan

Programa honen xedea umeen eta nerabeen arretan eta heziketan jardunbide egokiak sustatzea da. Gurasoei, familiei, neska-mutilei eta haur nahiz nerabeen arloko profesionalei zuzendutako lantegiak eskaintzen ditu programak. Lantegietan, honako alor hauekin lotutako gaiak jorratzen dira: gurasotasun positiboa, neska-mutilen gaitasun pertsonalak eta sozialak hobetzea eta jardunbide egokiak sustatzea neska-mutilentzako arretan. Taldean egiten da lan, parte-hartzean oinarrituta.

JARDUNBIDE EGOKIEN PROGRAMA		2021-2022 IKASTURTEA		2022-2023 IKASTURTEA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Familientzako lantegiak		15		17	
Parte-hartzaileak	Helduak	55	113	77	40
	Umeak	70	79	40	80
Lantegiak		104		118	
Helduak		54	199	28	168
Umeak		892	883	429	529
Irakasleak		44	136	10	36

Aurreko urtearekin alderatuta, 2023an haurren kopurua txikiagoa izan da, programazio komunitariorako kontratuan aldaketa bat gertatu delako; izan ere, kontratu horren xedetik atera dira haurrak zuzeneko hartzaile dituzten lantegiak, eta familientzako lantegiak eta soilik gurasoentzako eta irakasleentzako lantegiak egin dira.

Prologo: prebentzio-programa

Prologo programa gurasoei gaitasunak ematera bideratutako esku-hartze bat da, familia-inguruneak dituen gabeziak konpentsatzeko eta hazkuntza-ildo desegokien ezarpena eta kronifikazioa arintzeko. Taldeko saioak egiten dira gurasoei familiako arazoei aurre egiten laguntzeko.

PROLOGO PROGRAMA		2021-2022 IKASTURTEA		2022-2023 IKASTURTEA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Familientzako lantegiak		1		1	
Parte-hartzaileak	Helduak	7	9	0	0
	Umeak	8	3	0	0
Lantegiak		11		9	
Helduak		23	77	86	23
Umeak		19	9	0	0

Kale Heziketako Udal Programa - KHP

Gizarte eta hezkuntza arloko programa hau 8-19 urteko ume eta nerabeei dago zuzenduta; hain zuzen, erabateko garapen psikosoziala arriskuan jarri edo zailtzen dieten baldintza jakin batzuetan dauden ume eta nerabeei.

Kaleko hezitzaile-talde batek garatzen du programa (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako talde profesionaletako kide dira), eta binaka aritzen dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dauden eremu bakoitzean. Harremanetan jartzeko, harremanak izateko eta esku-hartzeak egiteko banan-banako formak erabiltzen dituzte, eta ume eta gazteekin egoten dira haiek dauden lekuan.

Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze honek babestu egiten du umeen eta gazteen sozializazio-prozesua eta, beraz, gizarte-integrazioa. Gertuko heziketa-harremana sortzen da, komunitateak dituen baliabide normalizatuak eskuratzen laguntzeko eta helduaroko bizimodua autonomoagoa izaten laguntzen duten gaitasunak indartzeko.

Zerbitzuen prestazio-kontratu baten bidez kudeatzen da programa (orain Arabako IRSEk kudeatzen du).

KALE HEZIKETAKO PROGRAMA ¹		2021	2022	2023
Erabiltzaileak	Artatutako nerabeak	824	780	766
	Batez besteko adina	14,6	14,5	14,4
	Gizonezkoak	54,1%	54,7%	50,1%
	Emakumezkoak	45,9%	45,3%	49,9%
Altak	Alta kopurua	199	167	175
	Sartu direnena batez besteko adina	12,5	12,4	12,0
Bajak	Baja emandako nerabeak	203	199	183
	Baja emandakoen batez besteko adina	15,9	16,0	16,0

Iturria: Kale Heziketako Udal Programaren datu-basea; ikasturteei buruzko datuak dira (irailetik uztaileira).

Arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeen kasuetan familiari laguntzeko eta esku hartzeko programak

Baliabide malguak eta dibertsifikatuak dira, eta erantzuna ematen diote 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan, ezarritakoari, eta zehazki, 1.3 fitxari: Gizarte zein hezkuntza alorreko esku hartzeen eta esku-hartze psikosozialen zerbitzua. Zerbitzu honek gizarte eta hezkuntza arloko laguntza eta/edo laguntza psikosoziala emateko prestazioak biltzen ditu (banakoentzat, familientzat eta/edo taldeentzat). Honako helburu hauek ditu pertsonentzat:

A) gaitasunak eskuratzea eta garatzea (jarrera, gaitasuna, ezagutzak, irizpideak, jarraibideak, trebeziak); bai gaitasun pertsonalak, familiakoak, bai taldekoak, modu autonomoan moldatzen, gizarteratuta egoten eta familia nahiz komunitatean bizikidetzat egokia izaten laguntzen dutenak.

B) ohitura, jokabide, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desagokiak baztertu eta egokiagoak hartzea

Programa hauen hartzailleak babesgabetasun-arrisku egoera arinean edo moderatuan dauden adingabeak eta haien familiak dira.

Familiei laguntzeko programak

Arreta psikologikoa eskaintzeko programa

Programa honek esku-hartze psikoterapeutikoa eskaintzen die Udaleko Gizarte Zerbitzuetan artatutako familiei, haien trebezia pertsonalak, harremanetarako trebeziak, seme-alaben haziera eta heziketarako trebeziak hobetzen laguntzeko baliabideak sustatze aldera. Bi modalitate daude:

- Familia-terapia: babesgabetasun arin edo moderatuan edo zaurgarritasun-egoeran dauden seme-alabak dituzten familiei zuzendua.

- Bakarkako laguntza psikologikoa: babesgabetasun moderatuko egoeran dauden familietako kideentzat, pertsona horiek oraingo edo etorkizuneko zailtasunei aurre egiteko baliabide eta trebeziak eskuratzea sustatzeko, eta babesgabetasun-egoeraren ondoriozko kalte emozionalaren ondorioak onbideratzeko.

ARRETA PSIKOLOGIKOA ESKAINTZEKO PROGRAMA		2021			2022			2023		
FAMILIA-TERAPIA										
Erabiltzaileak	Artatutako familiak	22			35			46		
	Altak	14			20			24		
	Bajak	5			14			17		
BAKARKAKO ARRETA PSIKOLOGIKOA										
Erabiltzaileak	Artatutako pertsonak	Guztira:	G:	E:	Guztira:	G:	E:	Guztira:	G:	E:
		142	72	70	124	71	53	109	50	59

ARRETA PSIKOLOGIKOA ESKAINTZEKO PROGRAMA		2021	2022	2023
	Altak	64	38	21
	Bajak	52	54	18

Familia kolaboratzaileekin aldi baterako ume eta nerabeen zaintza eskaintzeko ORAIN programa

Une jakin batean seme-alabak zaindu eta artatzeko ezina duten familiei aldi baterako laguntza ematen die programa honek. Aurretik eginiko balorazioan egokitzat hartutako hiriko familia kolaboratzaileen bidez eskaintzen da laguntza. Umeen eta nerabeen beharrei haien etxean bertan erantzuten diete Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuaren laguntzarekin. Familia kolaboratzaileek borondatez hartzen dute parte, ume eta nerabeen ongizatearekiko elkartasunez eta interesez.

Hartzaileak hirian familia-sarerik eta sare sozialik gabeko familia-unitateak dira; hain zuzen, babesgabetasun larriaren adierazlerik hauteman ez zaien arren, haien osasunari, prestakuntzari edo izapide administratiboari (agiriak erregularizatzea, jatorriko herrialdera premiazko bidaiak...) lotutako unean uneko inguruabarrengatik, denboraldi jakin batean seme-alaba adingabeaz arduratu ezin direnak eta horretarako bestelako baliabiderik ez dutenak.

ORAIN PROGRAMA		2021	2022	2023
Erabiltzaileak	Ume eta nerabeei eskainitako laguntzen kopurua	9	9	9
	Artatutako familien kopurua	5	4	6
Familia zaintzaileak		3	4	6

Gurasoen aurkako indarkeria-egoeretan garaiz esku hartzeko programa

EHUrekin elkarlanean garatutako programa. Gurasoen aurkako indarkeria-arazoak dituzten familietan eta gurasoek nerabeen jokabidea kontrolatzeko ezintasuna dutelako sortzen diren babesgabetasun arin edo moderatuko egoeretan seme-alaba adingabeek (11-18 urte) gurasoen aurka dituzten indarkeriazko jokabideak murriztea da helburua. Familiako kideei egoera horiek kontrolatzeko tresnak eta trebetasunak eskaintzea da helburua, egoera horiek desagerrarazteko; baita familian gatazkak konpontzeko beste jokabide egoki batzuk ezartzen laguntzea ere.

Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea 6 hilabetez egiten da, psikologoek gidatutako taldeko saioen bidez, bai nerabeekin, bai gurasoekin, eta familia bakoitzarekin saioak ere egiten dira. Bakarkako saioekin osatzen dira, landutakoa indartzeko eta aholkuak emateko.

GURASOEN AURKAKO INDARKERIA-EGOERETAN GARAIZ ESKU HARTZEKO PROGRAMA		2021	2022	2023
Parte-hartzaileak	Familiak	16	9	7
	Amak	16	9	7
	Aitak	12	5	6
	Seme nerabeak	19	5	5
	Alaba nerabeak	8	4	2
Esku-hartze profesionala	Nerabe taldeen saioak	17	17	16
	Guraso taldeen saioak	14	14	14
	Familien saioak	59	58	8
	Landutakoa indartzeko saioak	6	10	4
	Aholkularitza	10	13	24
Tailer komunitarioen kopurua				3

Banantze- eta dibortzio-egoera gatazkatsuetan gurasokidetasun positiboa lantzeko “Egokitzen” programa

Esku-hartze programa honetan Deusto Family Psych ikerketa-taldeak hartzen du parte, eta gurasoak banantze- edo dibortzio-prozesu gatazkatsuan izan eta seme-alabei kalte emozionala sor diezaieketen familiei dago zuzenduta.

Programa honek lagundu egiten die familiei bikote-harremana hautsi ondoren gurasotasun positiboa aplikatzen eta gurasotasunerako trebetasunak hobetzen, hala, seme-alabei familiaren errealitate berrira egokitzeko, eta modu osasungarrian hazteko aukera emango dien giro seguru bat sortzeko. Bestalde, umeei lagun egiten zaie gurasoak banantzetik etorritako prozesu emozionalak eta kognitiboak kudeatzen.

Psikologiaren eta heziketaren alorretakoa da esku-hartzea, eta taldean esku-hartzeko zenbait formatu erabiltzen dira: gurasoak, seme-alabak, aitona-amonak eta bikotekide berriak. Bakarkako saioekin osatzen dira, landutakoa indartzeko eta aholkuak emateko.

BANANTZE- ETA DIBORTZIO-EGOERA GATAZKATSUETAN GURASOKIDETASUN POSITIBOA LANTZEKO EGOKITZEN PROGRAMA		2021	2022	2023
Parte-hartzaileak	Taldeko esku-hartzean parte hartutako pertsonak	49	17	14
	Helduak	37	12	8
	Umeak	12	5	6
Profesionalen ekintzak	Guraso taldeen kopurua	5	3	2
	Saio kopurua	41	22	22
	Umeen talde kopurua	1	1	1
	Taldeko saio kopurua	10	10	5
	Bakarkako saio kopurua	35	22	10

“Concilia” gunea

“Concilia” jolaserako eta harremanetarako gunea da, non monitoreek 4 hilabetetik 12 urtera bitarteko haurrak artatzen baitituzte. Gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntza-jarduerak, lan-jarduerak edo bestelako kudeaketak egiten dituzten bitartean (kontsulta medikoak, elkarrizketak, kudeaketa administratiboak...) haurrak zaintzeko laguntza behar duten familientzako programa da. Larrialdi egoerei ere erantzun diezaieke, esaterako, ospitaleko larrialdiei.

“Concilia” gunea	2023
Artatutako familiak	62
Artatutako haurrak	82
Arreta-orduen kopurua	6.602

Gizarte eta Hezkuntza alorretan esku hartzeko Programa

Bizitzako une batzuetan, pertsona batek edo familia batek zailtasunak izan ditzake egoera berri edo zail bati aurre egiteko: hazkuntzaren etaparen batean, etxeko antolamenduarekin moldatzeko, gizarte-harremanak izateko, komunitatean laguntza bilatzeko, gatazkak konpontzeko... Kasu horietan, gizarte-hezkuntzako edo gizarteratzearen alorreko profesional baten laguntza izan daiteke etxean, zailtasunak konpontzerakoan segurtasun eta eraginkortasun handiagoz aurrera egin ahal izateko.

Gizarte eta Hezkuntza alorretan esku hartzeko Programa	2021	2022	2023
Ordu kopurua urtean	18.518	17.207	23.803 Hezitzailea 2.311 Integratzailea Guztira: 26.114
Urteko uneren bateko indarrean egondako espediente kopurua	Hez: 253 Integr: 16	Hez: 250 Integr: 30	Hez: 219 Integr: 32
Urteko uneren bateko indarrean egondako pertsona kopurua	Hez: 784 Integr: 20	Hez: 780 Integr: 40	Hez: 657 Integr: 44
